ASTELEHENEKO
# Goienkaria
2010eko irailaren 6a > Astelehena > VII. urtea > 288. zenbakia > 1,10 euro
Goiena 10 urte — www.goiena.net — TOKIKOM



"Agian, 2015ean berreskura ahal izango ditzakegu duela bi urte genituen errenta mailak"

**Antton Perez Calleja**
Ekonomialaria > 08

**G2a** Drakes, punk 'patatero'-aren emaitza > 29

**ARRASATE** Lehendakariak MUren berrikuntza zentroa inauguratuko du gaur > 17

**BERGARA** Espetxe zigorra herriaren aldeko lanekin ordezkatuko dute > 17

**ARETXABALETA** Basagoiti eta Izurietako konpentsazio lanak, hastear > 19

**POLITIKA** > ETA-REN IRAGARPENA

# Baikor eta mesfidati, politikariak bananduta

**MADRIL** Hainbat alderdik Espainiako Gobernuak urratsak emateko ordua dela uste dute

**ZIURTASUN EZA** Hainbat talderen ustetan, ETAk armak utzi behar ditu eta mesfidati dira > 04



**BERRIRO LAU** Mondra, UDA, Aloña eta Bergarako kapitainak, liga hasteko prest. JOSETXO ARANTZABAL

## Gure taldeak, jokalariz jokalari

Asteburuan hasiko da futboleko Ohorezko Erregional mailako liga, eta Debagoienak lau ordezkari izango ditu berriz ere Gipuzkoako kategoria gorenean.

Mondra, UDA, Aloña Mendi eta Bergara azken probak eta prestaketa lanak egiten ari dira egunotan. Batzuek itxi gabe dute oraindik taldea, beste batzuek eginda dagoeneko. Oraingo alean taldeen aurkezpena egin dugu. > 22-25

**GATZAGA** > ANDRAMAIXAK

## Parte-hartze polita izan dute jaietan asteburuan

Leintz Gatzagako Andramaixak oraindik ez dira bukatu, baina gatzagarrek nekatuta egoteko arrazoiak badituzte. Egubakoitzeko punk kontzertua, zapatu eguerdiko umeendako ikuskizuna, musikariek girotutako herri-afaria eta domekako kirol sorta handiamendi bizikleta ibilaldia, pilota eta herri-kirolak- izan dira arrakastatsuenak.

Hala ere, datozen egunetan ere badira oraindik ekintza gehiago; otxandioarren bisita, tartean. > 12-13

**EKONOMIA** > LANGABEZIA

## Abuztuan 93 langabe gehiago ibarrean

Azken lau hilabeteetako joera hautsi eta langabeziak gora egin zuen ibarrean abuztuan. Hilabete horretan 93 langabe gehiago zeuden ibarrean. Iazko abuztuko datuekin alderatuta, baina, egoerak hobera egin du; aurten 426 langabe gutxiago zeuden-eta.

Eskoriatzan eta Leintz Gatzagan izan ezik, gainerako herri guztietan egin du gora langabe kopuruak: Eskoriatzan jaitsi egin da (langabe bat gutxiago); eta Leintz Gatzagan mantendu. > 06

**AURKIBIDEA**

**Debagoiena** > 02-07
**Elkarrizketa** > 08
**Iritzia** > 10
**Herriak** > 11-20
**Kirola** > 21-27
**Kultura** > 29-31
**Sailkatuak** > 32-33
**Denbora-pasak** > 34
**Telebista-Irratia** > 35
**Berri-zakua** > 38-39

**POLITIKA** > HAUTESKUNDEAK

## Lourdes Idoiaga, alkategai

Lourdes Idoiaga alkategai aurkeztu zuten zapatuko Oñatiko alkate ohien omenaldian > 06

**ZIKLISMOA** > OMENALDIA

## Harrera, Markel Irizarri

RadioShack taldeko txirrindulari oñatiarrak lagun, jarraitzaile eta senitartekoekin batera ospatu zuen atzo arratsaldean abuztuaren 26an Frantzian lortutako garaipena, profesional mailako lehenengoa. > 21

Goiena kluba



Iritsi dira uztaileko opariak!
Badago zuretako?

Zoaz 3. orrialdera

**TURISMOA** > UDAKO OPORRAK

# Elgetako ibilbide tematikoa eta Arrikrutzeko espeleoabentura, aurtengo izarrak

**HITZORDU GEHIAGO** Bi irteera horiek izan duten harrera ikusita, hitzordu gehiago antolatzekotan dabiltza Oñatiko turismo bulegoan eta Mankomunitatean

**NAHIKO POZIK** Debagoieneko ostatu eta turismo bulegoetan, orokorrean, pozik daude; abuztuan joan den urtean baino jende gehiago ibili dela azpimarratu dute gehienek


36ko gerraren harira Elgetan egin diren bi ibilbide tematikoek oso harrera ona izan dute.

MIRIAN BITERI > BERGARA

Oporrak amaitu egin dira gehienendako eta emaitzak aztertzeko ordua da orain. Debagoienean bi hitzorduk bereganatu dute bisitarien eta ingurukoen interesa: Udaberrian Elgetan abian jarritako ibilbide tematikoa da horietako bat; eta, aurten bigarrenez, Arrikrutzeko kobetan egindako espeleoabentura irteera, bestea.

Elgetako Turismo zinegotzi Edurne Alberdik esan digu abuztuaren 5ean eta 29an egindako bi irteerek harrera bikaina izan dutela: "Talde bakoitzean 30 lagunendako tokia genuen eta arazo barik kupoa bete egin da. Debagoieneko Mankomunitatera deitu behar zuten txanda hartzeko eta horren gaineko informazioa jasotzeko. Lehenengo irteeran bailarako jendeak parte hartu zuen batez ere eta bigarrenean kanpoko jendea ere etorri zen".

Irteera hiru ordukoa da. 36ko gerra Euskal Herrian oinarri hartuta, ibilbide horretan Elgetako Intxorta mendiaren magalean izandako frontearen hainbat xehetasun ezagutzeko aukera eskaintzen du horrek. Ibilbidea Elgetako Espaloia Kafe Antzokitik abiatzen da: lehendabizi, Interpretazio Gunea bisitatuz; eta jarraian, 5 kilometroko ibilbide tematikoa oinez eginez.

**ESPELEOABENTURA**

Bestalde, Arrikrutzen uztailean eta abuztuan egindako espeleoabenturako bisitak ere guztiz bete dira, eta, hango teknikariek jakinarazi digutenez, irailaren 16koa ere beteta dago. Arrikrutzekoen arabera: "Plaza kopurua 16 lagunera mugatuta badugu ere, abuztuaren 14ko irteeran 17 edo 18 lagun izan ziren; denak euskaldunak. Abuztuaren 28an, ostera, denetarik etorri zen eta 18 lagun batu ginen. Joan den urtean jendeak agian ez zuen ezagutuko, baina, aurten izan duen harrera ikusita, datorren urteari begira irteera gehiago antolatzeko asmoa dugu".

**Arrikrutzeko espeleoabenturako bisitak bete egin dira uztailean eta abuztuan, eta irailean ere beteta dago**

**Oñatin, ondare historikoaren gaineko bisita gidatuetan 1.414 lagunek parte hartu zuten, iaz baino %47 gehiagok**

Bisita Arrikrutzeko 53. galerian hasten da: hori pasatu eta lehenengo geldiunea mendi puntatik 200 metrora egiten da; galeria horietako kare-harriek txundituta utzi dituzte bisitariak. Arrikrutzekoen esanetan, "irteera hiruzpalau ordukoa bada ere, ez da luze egiten; kilometro eta erdi baino ez gara ibiltzen". Aurtengo irteeretan, bestalde, bisitari berezia izan dela azaldu digute Arrikrutzetik: "Ekaineko urekin, orkatz bat erori zen errekara eta barruraino sartu zen. Hor egon da uda osoan, hilda".

**OÑATIN OSO DATU ONAK**

Bestalde, turismo bulegoek bidalitako aurtengo datuei erreparatuz gero, ondoriozta dezakegu, orokorrean, abuztua hilabete ona izan dela. Bergaran eta Oñatin gora egin du bisitarien kopuruak. Garapen eta Turismo Agentziako kudeatzaile Ikerne Altubek azpimarratu du ondare historikoaren inguruko bisita gidatuetan 1.414 lagunek parte hartu zutela, 2009an baino %47 gehiagok. Uztailean ere harrera bikaina izan



OÑATIKO TURISMO BULEGOA

**IÑURRITEGI-IGARTUA FAMILIA**
> Arrikrutzeko 60000. bisitaria

Joan den abuztuaren 29an, Oñatiko Iñurritegi-Igartua familiaren bisita jaso zuten Arrikrutzeko kobetan. Eguerdiko bisita gidatua egin zuen eta 60.000. bisitaria zenez, debalde irten zitzaien irteera bostei. Asko gustatu zitzaien barruan ikusitakoa.


MIRIAN BITERI

**JON ARROITA**
> Bergarako turismo bulegoa

"Bisitarien kopurua apur bat igo da. Iazko datuekin alderatuta, Espainiatik 478 lagun izatetik 596 izatera pasa gara. Bestalde, bergararren kopuruak nabarmen egin du behera, 161etik 86ra. Seminarioko ikerketen gaineko bisitarik ez egoteak dauka horren errua".



MIRIAN BITERI

**VALEN GOMEZ**
> Eskoriatzako Azkoaga Enea hoteleko arduraduna

"Abuztua ez da hilabete ona izan, eskaintza bereziak izan arren; oso arraroa izan da. Nire ustez, Gipuzkoako barnealdean zerbait txarto egiten ari gara. Ez dut ulertzen kostaldea beteta egotea eta gu, dauzkagun eskaintzekin, hutsik egotea".



DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA

zuten horiek; iazko datuak bikoiztu egin ziren, 1.041 bisitarekin.

Arrikrutzeko datuak ere positiboak izan dira, bereziki uztailekoak; hil hartan %19ko hazkundea izan zuten kobek, 1.389 bisitarekin; abuztukoa, ostera, %4,5ekoa izan zen, 1.854 lagunekin.

Arantzazuko Santutegian ere pozik egoteko arrazoia dute. Iazko datuekin konparatuta, Debagoieneko Turismo Informazio eta Interpretazio Zentrotik pasa ziren bisitarien kopuruan igoera %20koa izan dela jakinarazi digu Debagoieneko Mankomunitateko Turismo teknikari Ana Herizek.

Bergarak ere ohi baino bisita gehiago jaso ditu abuztuan; guztira, 881 bisita izan ditu, joan den urtean baino 18 gehiago; irailaren 22ra arte izango dute turismo bulegoa zabalik. Bestalde, Eskoriatzan oso jende gutxi ibili dela esan digute museoan.

Jatorriari dagokionez, normalean baino atzerritar gehiago ibili da aurten Debagoienean; Frantzia, Italia eta AEB eta Kanadakoak ziren gehienak. Espainiari dagokionez, urtero moduan, Katalunia, Madril, Valentzia eta Andaluziatik etorritakoak bisitatu gaituzte gehien.

**ASTEBETEKO EGONALDIAK**

Igoera hori ere igarri egin da, orokorrean, inguruko ostatuetan. Aretxabaletako Mitarte-Garai landetxeko Mariasun Zaloñak esan digu joan den urtean baino jende gehiago egon dela aurten. Horrekin batera, azaldu du hartutako gau kopuruek ere gora egin dutela eta ostatu hartuta astebete egon diren bisitariak izan dituela. Elgetako Barrenengua landetxean ere bat egin dute azken horrekin: "Orokorrean astebeteko egonaldiak egin dituzte. Oñati ingurua asko gustatu zaie, eta, hemen egonda, mendian zein kostaldean ibili dira. Etxean dauzkagun eskuorriak kontsultatu eta Lekeitio, Ondarroa eta Bermeo aldera egin dute askok. Asko gustatu zaie kostaldea".

Eskoriatzako Azkoaga Enea hoteleko Valen Gomez ez dator bat haien iritziarekin: "Eskerrak herriko jendea irten den, kanpoko oso jende gutxi etorri da-eta; ibarrera espresuki etorritakoak baino gehiago, bidaian zeudenak hartu ditut abuztuan hotelean. Zerbaitek ez du funtzionatzen".



MIRIAN BITERI

**MARIASUN ZALOÑA**

> Aretxabaletako Mitarte-Garai landetxeko ugazaba

"Pozik gaude. Iaz baino hobeto joan da abuztua. Beteta ez dugu izan, baina abuztuaren 20ra arte mugimendu nahiko izan genuen; gero apur bat jaitsi zen eta egunotan jendea dugu ostera ere. Katalunia, Madril eta Finlandiakoak izan ditugu".



MIRIAN BITERI

**EDURNE ALBERDI**

> Elgetako Turismo zinegotzia

"Oso pozik gaude, ibilbide tematikoak oso harrera ona izan duelako; hortaz, azarora bitartean beste hainbat irteera antolatzekotan gabiltza. Horrez gain, eskoletara zabaltzeko asmoa ere badugu; horretarako, umeendako egokitu beharko dugu".

**Abantailaz betetako kluba!**

Goiena kluba

**UZTAILEKO IRABAZLEAK**

Telefonoa: 943 25 05 05
e-posta: *kluba@goiena.com*
Kuota: 45 euro

**ARRIKRUTZERAKO BI SARRERA**
Arrikrutz kobak ikusteko bi sarrera
IRABAZLEA: **Zezilio Berezibar Altuna** — Arrasate

**ELHUYAR-EN PANPINA ETA JOKUA**
Elhuyar-en panpina eta jokua
elhuyar.org/zoozoroa
IRABAZLEA: **Unai Etxebeste Larrañaga** — Oñati

**ESAIT-EKO KAMISETA GORRIA**
ESAIT-eko kamiseta gorria
IRABAZLEA: **Iñaki Gantxegi Bergara** — Bergara

**EUSKALTELEKO KAMISETA**
Euskaltel-Euskadiko kamiseta laranja
IRABAZLEA: **Pilar Calvo Sodupe** — Arrasate

**SARI NAGUSIA UZTAILA-URRIA**
PARTE-HARTZAILE GUZTIEN ARTEAN ZOZKETATUKO DA

**WII SPORTS RESORT PACK TXURIA**

Ukabi informatika
Sistemen salmenta eta mantenua
TPV eta enpresak kudeatzeko aplikazioak
Webguneen diseinua.
Domingo Irala z/g (Ariznoa aurrean)
BERGARA Tel.: 943 15 01 01

**POLITIKA** > ETA-REN IRAGARPENA

# Baikortasuna eta mesfidantza, ibarreko politikarien artean

Erabaki horren gainean, Debagoieneko ordezkari politikoek duten iritzia jaso dugu

**1.** Zelan baloratzen duzu komunikatua eta erabakia?

**2.** Zer pausu eman beharko litzateke orain?

**3.** Zer eszenatoki irudikatzen duzu etorkizunerako?

**4.** Bakea eta normalizazioa lortzeko behin-betiko aukera izan daiteke?

### Xabier Zubizarreta
EZKER ABERTZALEA

**1.** Denok espero genuen.Horren ondorioa da Espainiako Estatuaren esku dagoela orain urrats garrantzitsuak ematea.

**2.** Estatuak Frankismotik ez ditu demokrazia baterako urratsak eman. Preso politikoen gutxieneko baldintzak bete behar dira eta independentismoaren aukera guztiei bidea eman. Horren alde presioa egin behar dugu herritarrok.

**3.** Aldatzeko zantzuak daude. Euskaldunok beti erakutsi dugu gaitasuna aurrera jotzeko eta helburu politikoak lortzeko gehiago saiatu behar gara.

**4.** ETAk borroka armatua uztea ez da nahikoa bakea lortzeko. Bi aldeetatik erasoak egon dira eta hori amaitu behar da. Espainiako Estatuak urrats hori eman behar du. Horren ondorioz, negoziaziora jo beharko litzateke.

### Aritz Arrieta
PSE-EE

**1.** Armak definitiboki uztea espero genuen. Sinesgarritasunik ez du. EAk eta ezker abertzaleak egindako adierazpenaren testuinguru horretan kokatu behar da.

**2.** Pausu bakarra dago: ETA desagertzea. Hauteskundeei begira egindako iragarpen moduan uler liteke: ETAk fabore moduko bat egiten diola ezker abertzaleari.

**3.** Batasunak argi izan behar du ETA badago, modurik ez duela izango politikan jarduteko.

**4.** ETAk egin behar du, ze guk gehiago ezin dugu egin. Traba bakarra ETA da. Nik ez du su-etenean sinisten.

### Lourdes Idoiaga
EAJ

**1.** Pentsamendu kontrajarriak dauzkat. Su-etena eskatzen 40 urte pasa ditugu eta berandu dator. Herri honetarako ona bada, eta interesgarria, denok zelai berdinean jolasteko, demokratikoki.

**2.** EAJk jarraituko du laguntza ematen, benetako su-etena bada, herriaren burujabetzaren bidean.

**3.** Herri honen autodeterminazio eskubidearen edo autogobernuaren alde hitzaren bidez egitea.

**4.** Horrela izatea nahiko nuke, presoen hurbilketa nahiko nuke, bestela ez da negoziaketa politikoa izango. Desio dudana da preso politiko guztiak hurbiltzea, eta aske egon behar direnak, askatzea.

### Rebeka Ubera
ARALAR

**1.** Baikor gara, baina ez da nahikoa. Beste urrats batzuk eman behar dira, eragile guztion artean bultzatu behar ditugu. ETAk behin betiko utzi behar du borroka armatua kontraprestazio barik. Oraingoan ezin dugu huts egin eta ETAk zeresan handia dauka.

**2.** Aralarrek beti aldarrikatu dio ETAri alde bakarreko borroka armatua uztea, kontraprestazio barik. Horrek asko lagunduko luke normalkuntzan.

**3.** Lehendabizi, oinarrizkoa da giza eskubideetan oinarritutako normalkuntza zibil eta politikoa. Horrez gain, biktima eta kaltetu guztien erreparazioa behar da.

**4.** Itzulera barikoa izan behar da. Aralar ahalegínduko da herriak eskatzen duen ETArik gabeko gizartea izatea; sufrimendu asko ekarri dio gizarteari.

### Peio Urizar
EA

**1.** Askok eskatua genuen: nazioarteko bitartekariek, Bruselan, ezker abertzaleak… gizarteak eskatutakoa zen. Pauso garrantzitsua da eta orain pilota Espainiako gobernuaren teilatuan dago.

**2.** Erantzukizunez jokatu behar dugu. Eragile politikoek, sindikalek, gizartekoek badute zer egina eta zer esana, prozesuaren zailtasunak ekiditeko. Hurrengo urratsa da Estatuak pausoak ematea hau benetakoa izan dadin.

**3.** Gutxieneko demokratikoak bermatu behar dira: giza eskubideak eta eskubide politikoak denontzat. Hori gabe ez dago ezer.

**4.** Ezker Abertzaleak bakarka hasi zuen bide hau eta ETAren iragarpena beste pauso bat da. Hala, beste aldekoak baldintzatzen ditu eurek beste urrats bat eman dezaten.

### Itziar Lamarain
PP

**1.** Ondo hartuko nahiko nuke, baina ezkor naiz, ez delako halako jakinarazpen bat egiten duten lehenengo aldia. Armak utzi behar dituzte.

**2.** ETAk armak behingoz utzi behar ditu. Halako jakinarazpen nahasi baten aurrean, zer egingo dugu bada? Ez da nahikoa.

**3.** Ez nuke nahi hauteskundeetan egon ahal izateko trikimailu bat izatea. Hala balitz, nazkagarria litzateke.

**4.** Hala izan dadila! Etxafuegoak botako nituzke! Egoera oso gogorrak bizi izan ditugu eta bada ordua.

### Iñaki Galdos
H11!

**1.** Poza hartzen dugu, mehatxupean dauden lagunengatik. Baina gabezia asko ditu eta ez da nahikoa. ETAk bere burua jarri gura du ireki gura duen prozesu bateko bermatzaile.

**2.** ETAren desagerpena da benetako pausua. Euskal Herrian pasatu behar dena euskal herritarrek erabakiko dute.

**3.** Une garrantzitsuak datoz. Datorren urteko hauteskundeek berebiziko garrantzia izango dute; Euskal Herria apurka bake eta normalizazio bidean jarriko da, ETAri irabazi diolako.

**4.** Momentu onean gaude. Bakea lortzen baldin bada gizartearen garaipena izango da, ez ETArena.

### Juan Luis Merino
EB-BERDEAK

**1.** Positiboki baloratzen badugu ere, ez da nahikoa. ETAk ezin du esan armak uzten dituela horiek entregatu eta su-etena behin-betiko den edo ez zehaztu barik.

**2.** Politika kontua da hemendik aurrerakoa. Hortaz, alderdi guztiak ados jarri behar dira, egoera berriaren aurrean nola jokatu behar den erabakitzeko.

**3.** Positiboak gara, baina ETAk hainbat su-eten eszenaratu ditu eta ez gara fidatzen. Herritarrek behin-betiko su-etena espero dute. Espainiako Gobernuak malgutasuna izan beharko luke, ezker abertzalea pausuak ari daeta ematen.

**4.** Horrela izatea gustatuko litzaidake. Esan bezala, oso positiboki baloratzen dugu.

### Ander Rodriguez
ALTERNATIBA

**1.** Norabide onean emandako urratsa da, atzokoa baino egoera hobean uzten gaitu-eta.

**2.** Mitchell printzipioetara lotuta etorri beharko litzateke hurrengo urratsa nazioarte mailako erantzunarekin.

**3.** Herritarren mobilizazioan dago gakoa, egoera definitiboa atzera bueltarik gabea izan dadin.

**4.** Honek izan behar du aukera. Baditu ezaugarri bereizgarriak oraingoak, ezker abertzalea delako orain ekimen politikoaren jabe dena.



Maulanda
merenderoa
Eguneko menua
Maulanda auzoa ESKORIATZA
Tel.: 943 71 47 20 eta 943 71 54 56



# ETXERA ITZULTZEA
## errazagoa Gorbeiarekin

# 4.500€

## baino gehiago irabazi ditzakezu

**1. SARIA**
Erosketa-txartela **2.000€** + **Eskolara Itzultzeko Packa**
Ordenagailu eramangarri bat + motxila bat + txandal bat

**2. SARIA**
Erosketa-txartela **1.500€** + **Eskolara Itzultzeko Packa**
Ordenagailu eramangarri bat + motxila bat + txandal bat

**3. SARIA**
Erosketa-txartela **1.000€** + **Eskolara Itzultzeko Packa**
Ordenagailu eramangarri bat + motxila bat + txandal bat

IMAGEN21

Lortu ezazu parte hartzeko txartela (**Merkataritza Parkea**n edo **GB**-n), 20**€**-tik gorako erosketa bat egin eta sarien zozketan parte hartu ahal izango duzu.

Oinarri osoak gerentziaren bulegoan daude eskuragarri.
Promozioak 2010eko irailaren 3tik urriaren 2ra bitarte iraungo du.

ESKORIATZA 10 minutuan
ARRASATE 13 minutuan.
BERGARA 16 minutuan.
SORALUZE 21 minutuan.
EIBAR 23 minutuan.



**GORBEIA**
gehien aurrezten duzun tokia

Etxabarri Ibiña
IRTEERA
AP - 1 EIBAR -GORBEIA
(GASTEIZ)

Carrefour · DECATHLON · Norauto · McDonald's i'm lovin' it · BRICO DEPOT · merkal calzados · King Jouet · YELMO CINES DIGITAL 3D · MUEBLES MAX DESCUENTO · CIMER el outlet del electro · SAMIRA



Ezkerretik hasita, Jabier Zelaiaren seme Juan, Eli Galdosen emazte Maritere Olazar, Lourdes Idoiaga, Andoni Gartzia eta Angel Iturbe, Egibarrekin. JOSETXO ARANTZABAL

**POLITIKA** > UDAL HAUTESKUNDEAK

# Lourdes Idoiaga alkategai aurkeztu dute, alkate ohien omenaldian

Ekitaldian Gipuzkoako Buru Batzarreko presidente Joseba Egibarrek azpimarratu zuen Euskal Herria eraikitzeko bakea eta erabakitzeko eskubidea ezinbestekoak direla

**MIRIAN BITERI** > OÑATI

Datorren urteko udal hauteskundeen harira, zapatu eguerdian batzokian egindako ekitaldian, Lourdes Idoiaga aurkeztu zuten Oñatiko EAJren zerrenda-buru. Ekitaldi berean, herri horretan alderdi jeltzaleko alkate izan direnak omenduko zituzten; hain justu ere, Jabier Zelaia, Eli Galdos, Angel Iturbe, Andoni Gartzia eta Lourdes Idoiaga.

Ekitaldia hautagaien aurkezpenarekin hasi zen, eta jarraian, alkateak omendu zituzten. Jabier Zelaia eta Eli Galdos zirenen izenean, Juan semea eta Maritere Olazar emaztea, hurrenez hurren, irten ziren alkate izandako eta denari aurreskua dantzatu zietenean. Alkate bakoitzaren irudia bana ere eskegi zuten horman.

Jarraian, Gipuzkoako Buru Batzarreko presidente Joseba Egibarrek hartu zuen hitza. Egindako gogoeta politikoan, garai berri baten atarian gaudela azpimarratu zuen, "bakea eta erabakitzeko eskubidearen garai politiko berrian"; eta horrek "ez du atzera bueltarik" ohartarazi zuen. Horren harira, ordezkari jeltzaleak nabarmendu zuen bakea eta erabakitzeko eskubidea "gakoak" direla etorkizuneko Euskal Herria eraikitzeko eta "biak batera onartzen dira ala, bestela, ez dute ezertarako balio".

**AURREKO ALKATEAK, EREDU**

Egibarren berbaldiaren ostean, Lourdes Idoiagaren txanda iritsi da. Jasotako omenaldiari dagokionez, azpimarratu du aurretik alkatetzan egondako beste lau oñatiarrak berarendako eredu izan direla. Aldi berean, Oñatiri buruz ere berba egin du: "Nire herria beste edozer baino gehiago maite dut".

Alkatetzarako hautagaiaren gainean, ostera, herritarren parte-hartzea ezinbestekoa dela aipatu du: "Zerrenda batean gurekin etortzea nahi dutenak ongietorriak dira".



Idoiaga eta Eli Galdosen emazte Maritere Olazar, zapatuko ekitaldian. J.A.

**EKONOMIA**

## Abuztuan, 93 langabe gehiago bailaran

Leintz Gatzagan eta Eskoriatzan izan ezik, gainerakoetan gora egin du langabeziak

**T. MADINA/M.BITERI**> ARRASATE

Azken lau hilabeteetako joera hautsi eta langabeziak gora egin zuen ibarrean abuztuan. Hilabete horretan 93 langabe gehiago zeuden ibarrean. Iazko abuztuko datuekin alderatuta, baina, egoerak hobera egin du; aurten 426 langabe gutxiago zeuden-eta.

Eskoriatzan eta Leintz Gatzagan izan ezik, gainerako herri guztietan egin du gora langabe kopuruak: Eskoriatzan jaitsi egin da (langabe bat gutxiago), eta Leintz Gatzagan mantendu.

**IGOERA HANDIENA, OÑATIN**

Oñati izan da igoera handiena izan duen herria, 34 langabe gehiagorekin. Dena dela, langabezia tasa txikiena du; hain justu, %7,29koa. Antzuolak, ostera, du langabezia tasa handiena, %10,88. Debagoienean, %9,58an geratu da tasa.

Datu orokorrei kasu egin ezkero, Hego Euskal Herrian ere gora egin zuen langabeziak abuztuan; hilabete amaieran, 3.386 langabe gehiago zeuden. Iazko datuekin alderatuz, 12.450 gehiago da hori.

### Kopurua, herriz herriz

| HERRIA | LANGABEZIA |
|---|---|
| Antzuola | 99 |
| Aretxabaleta | 290 |
| Arrasate | 1.225 |
| Bergara | 705 |
| Elgeta | 43 |
| Eskoriatza | 203 |
| Leintz Gatzaga | 11 |
| Oñati | 394 |
| GUZTIRA | 2.970 |

## MUren berrikuntza zentroa eta kurtsoa inauguratuko ditu gaur lehendakariak

Patxi Lopez lehendakariak inauguratuko du goizeko 11:45ean Mondragon Unibertsitateak Arrasateko Garaia Campusean kokatu duen Elektronika eta Sistema Txertatuen Ikaskuntza eta Berrikuntza zentroa. Ondoren, eguerdian, 2010-2011 ikasturtea irekiko du lehendakariak.



JULEN IRIONDO

Pamiela argitaletxeak, Kulturaren aldeko Euskal Fundazioaren babesarekin

JUAN ZELAIA
X. Saiakera saria

antolatzen du, euskaraz idatzitako edozein gairi buruzko saiakerak edota iritzi lanak zabaldu eta sustatzeko asmoz.

Saria: 9.000 €

Lanak bidaltzeko:
Pamiela etxea (Juan Zelaia Saria), Agustindarren industrialdea-Soltxate. G kalea-31013 IRUÑEA.

Irailaren 30a arte

Tel.: 948 326535
soltxate@pamiela.com
Arauak: www.pamiela.com





Arrate Bengoa Goiena Telebistaren platoan, joan den eguenean. ARRITXU BARRUSO

Arrate Bengoa > Pediatra

# "Azken bost urteotan pedriatriaren egoerak okerrera egin duela argi dago"

JOKIN BEREZIARTUA > BERGARA

**Debagoieneko pediatria zerbitzuaren gabeziak eta hutsuneak aspalditik datozen kontuak dira, eta Arrate Bengoa Bergarako anbulatorioan diharduen pediatraren adierazpenak aintzat hartuz gero, auziak ez du epe motzerako irtenbiderik izango. Gainera, azken urteetan egoera "poliki-poliki okerrera" doala esan zuen Bengoak Goiena Telebistako *Magazinea*-n.**

**Pediatrok aspalditik salatu duzue lan karga handia duzuela. Noiztik?**

Aspalditik ari gara behin eta berriro arazo berarekin bueltaka. Orokorrean gero eta mediku gutxiago daude eta hori lehen mailako pediatrian oso nabarmen ikusten da. Gainera, azken urteotan egoerak okerrera egin du; urtetik urtera ez da nabarmen igartzen baina, esaterako, azken bost urteotan, pediatriaren egoerak okerrera egin duela argi dago.

**Laburbilduz, zein da zuen egoera? Zein baldintzatan egiten duzue lan?**

Lehen mailako pediatrian garenon lana oso garrantzitsua dela uste dugu. Ikusten ari gara poliki-poliki gero eta pediatra plaza gehiago betetzen dituztela pediatrak ez diren medikuek. Normalean ez dira lanpostu finkoak izaten, aldi baterakoak baizik, eta askotan ez dute zerbitzua behar den moduan emateko gaitasunik.

Auzi horretan murgilduta gaude, orain arteko eredua mantendu edo ez. Hau da, gure papera eztabaidan jarri da eta guk osasun zentroetan pediatren papera oso garrantzitsua dela deritzogu. Finean, pediatrak mantendu behar direla ezinbestekoa da.

**Bergarako anbulatorioan egiten duzu lan. Zenbat pediatra ari zarete lanean orain bertan?**

Bergaran zortea daukagu, egun bi pediatra gaude-eta. Debagoienean, baina, bederatzi plaza daude eta horietatik lau ez dira pediatrak. Hala ere, EAEko egoera ikusita, bederatzi izatea oso ondo dago eta kopuru hori mantentzea ez da gutxi.

**Beraz, ez duzu erraz ikusten bederatzi pediatra mantentzea.**

Esan bezala, gero eta pediatra gutxiago daude eta bajaren bat baldin badago, plaza horretarako beste pediatra bat topatzea gero eta zailagoa da.

**Nola konpondu daiteke arazoa?**

Nik neuk ez dakit; baina lehen mailako pediatren elkarteak hainbat proposamen egin ditu.

**"Debagoienean bederatzi plaza daude eta horietatik lau ez dira pediatrak"**

**"Osasun zentroetan pediatren papera oso garrantzitsua dela deritzogu"**

**"Aldaketa egon behar direla garbi dago. Denon artean irtenbide onena topatzea espero dut"**

Lehenengo, pediatra bakoitzeko erizain bana izatea nahi dugu. Horrez gain, eredua mantentzeko, kanpotik pediatrak ekartzea eskatzen dugu. Dena dela, beste proposamenak entzuteko eta aztertzeko gertu gaude.

**Arazoa konpontzeko proposatu diren neurrien artean, pediatrek eskaintzen duten zenbait zerbitzu familí medikuek ematearena dago. Zer diozu horren gainean?**

Abuztuaren 22an, *El Correo* egunkarian, familia-medikuen elkartearen presidente Rafael Graciak adin pediatrikoa 7 urtera arte izatea eskatu zuen; orain 14 urtera dago. Sorpresa handia izan da proposamen hori. Orain dela 30 urte osasuna horrela zegoen antolatuta eta hortaz, atzera joatea dela iruditzen zaigu.

**Beste proposamen bat izan da pediatria zerbitzua osasun zentro jakin batzuetan jartzea...**

Albiste asko eta ezberdinak irten dira azkenaldian. Guk eskatzen duguna da elkartzea eta gaia modu serioan eta beste modu batean aztertzea. Ofizialki ez dugu inongo proposamenik jaso; behin eta berriro eskatu dugu Osakidetza Asistentziako zuzendariorde Carlos Solarekin batzea, arazoei irtenbideak topatzeko. Irailerako Osakidetzarekin batzarrak egiteko eskaera egin dugu eta erantzunaren zain gaude.

**Nola ikusten duzu etorkizuna?**

Aldaketak egon behar direla garbi dago, ez dago besterik. Denon artean irtenbide onena topatzea espero dut.

etxeko leihotik



Inazio Arregi > 'zuzen@goiena.com'

## Zortzimilakoak metatzearen merituaz

Gaur egun 14 zortzimilakoak metatzearen meritua eztabaidagarria da gutxienez. Messnerrek egin zituenean, hainbat osagai berri erantsi zizkion lehenengoa izateari: oxigenorik gabe, soka finkorik gabe, bakarka batzuetan... ekarpen handiak egin zizkion mendizaletasunari.

Egun mendizaleak material hobeak ditu; eguraldi-iragarpenak ia seguruak dira; bibliografia handia dago. Gehitu babesleen ekarpenak, prestatzaile fisikoak eta zamaketarien prestakuntza, eta ezin ukatu gaur zortzimilakoak lortzearen balentria erlatibizatu beharra dagoela.

Hala ere, Edurne Pasabanek egindakoari meritu handia aurkitzen diot. Zerbait berritzailea ekarri digu, emakumea ere gizonezkoen mundu horretan ibiltzeko gauza dela erakutsiaz. Berak eta beste batzuek noski: Wanda, Gerlinde, Miss Oh,...

**"Gizonezkoen mundu horretan ibiltzeko gauza dela erakutsi du Pasabanek"**

Ez nator bat ikuspegi erromantiko batetik Edurne kritikatu dutenekin. Zer dute erromantikotik mendi lasterketek, adibidez? Mendira hurbiltzeko era asko daude, nahiz eta batzuk ez gustatu.

Egin duena handia da, baina ez ditut ulertzen komunikazio alderditik egiten dituen akatsak: aste honetako prentsaurrekoa kasu. Gauzak esan aurretik hobeto pentsatu beharko lituzke, ez badu bukatu nahi beste zortzimilako bildumazale euskaldun telebisibo batek bezala.

**> Joxe Arregi ere izan dugu berbagai. Agnostikoak ere kristau kultura honetan bizi gara. Horregatik dut hautatzeko eskubidea, eta askatasunaren eta demokraziaren alde jartzen denaren aldeko hautua egiten dut. Aurrera, Joxe!**

**> Langabeziak gorantz eta gorantz jarraitzen du eta ez omen du behera egingo hurrengo urteetan. Ez modu nabarmenean, behintzat. Zein da ongizate gizartearen ezaugarria? Prestazioak eta zerbitzuak ala guztiek lan egiteko aukerak izatea?**

TURISMOA > ARANTZAZU

# Santutegira bisita gidatuak egiteko aukera oraindik

Urriaren 12ra arte iraungo dute udako bisitek; erreserba egitea komeni da

J.B. > OÑATI

Debagoieneko Turismo, Informazio eta Interpretazio zentroak aurrera darrai Arantzazu Santutegirako bisita gidatuak antolatzen. Udako denboraldia urriaren 12ra arte luzatu dute; eta beraz, ordura arte erreserba daitezke bisitak. Izan ere, Arantzazuko inguru paregabea ondo baino hobeto ezagutu gura duenari aldez aurretik erreserba egitea gomendatzen diote.

Honako ordutegian egingo dira bisitak: goizez, 10:30ean, 11:30ean eta 12:30ean; eta arratsaldez, 16:00etan eta 17:00etan.

**'OTEIZA ETA ARANTZAZU' ERE BAI**

Santutegia ezagutzeko bisita gidatuaz gain, *Oteiza eta Arantzazu* izeneko bisita egiteko aukera ere egongo da. Jorge Oteizaren bizitzan Arantzazuko Santutegiak izan zuen garrantzia islatuko du bisitak.

Antxon Perez de Calleja (Zarautz, 1943) ekonomialariaren ustetan, krisiak konponbide zaila duten bi ondorio nagusi utzi ditu: zorpetze maila handia eta hazkunde-eredu amortizatua: "Zor duguna itzuli beharra daukagu, ia hazkunderik gabeko egoera baten, gainera". Krisi aurreko egoerara itzultzeko bidea luzea izango dela aurreikusten du Perez de Callejak.

**Antxon Perez de Calleja** > Ekonomialaria

# "Agian, 2015ean berreskura ditzakegu duela bi urte genituen errenta mailak"

**EDU MENDIBIL** > ARETXABALETA

**Kostaldeko debagoiendarra bilakatu da honezkero Antxon Perez de Calleja zarauztarra, 30 urtetik gora darama-eta gure artean. Aretxabaletako Gellao auzoan bizi da. Enpresen aholkularia da eta aldian behin egoera ekonomikoaren gaineko azterketak egiten ditu. Krisialdiaren tuneletik ateratzea kosta egingo zaigula dio. Ikasturte berriaren atarian, harengana jo dugu, guztion buruhauste bihurtu den krisiaren gakoak ezagutzeko.**



Antxon Perez de Calleja ekonomiliaria Gellao auzoan atsedena hartzen. JOSETXO ARANTZABAL

**Udaren atarian egin zenuen azterketa ez zen batere itxaropentsua. Zelan aurkezten da urteko bigarren zatia?**

Aurreikuspenen arabera, lehenbiziko zatia baino zertxobait okerragoa izango da. Europako Batzordearen arabera, ez da izango lehen zatia bezain "arrakastatsua" eta, bestetik, *double deep* edo berreroriko bat gerta daitekeela uste dutenak ere badira. Atzeraldi etapa baten ondorioz, politikarien ahotik entzuten genuen susperraldia etorriko zela, baina argi dago bide hori mantsoa, patxadatsua, luzea izango dela. Etorkizuna zalantza askokoa da. Gobernuaren aurreikuspenen arabera, 2012tik aurrera %2,5etik gorako hazkundea izango dugu, baina guztiz utopikoa da hori. Krisialdi aurreko BPG (Barne Produktu Gordina) ez dugu 2014. urtea baino lehen berreskuratuko eta %2ko hazkunde tasa ez dugu berriro 2016. urtera arte izango. Horixe bera esan berri du Nazioarteko Diru Fondoak.

**Krisialdiak errealitatera itzularazi gaituela aipatu duzu behin baino gehiagotan.**

Neurri baten, merkatuei eskerrak emateko moduan gaude. Bestela, sekula ez genituzkeen egingo egin beharrean gauden erreformak. Badira krisialdiei betiere probetxua ateratzen zaiela diotenak. Sufritzen ari garen oraingo hau funtsezkoa izango da ustez behintzat aldaezinak ziruditen inertziak aldatzeko. Ia-ia ekonomia ikastaro trinko bat egiteko aukera eskaini digu krisiak eta, bai, errealitatera jaisteko baliagarria izan da. Gure mugak zeintzuk diren jabetzeko baliagarria bada krisia, gaitzerdi. Gure ekonomiaren berritzerako agian ezinbestekoa izan da.

Izan ere, aurretik bizi izan duguna, nolabait esateko, denboraldi faltsu bat izan da: %3 inguruko hazkunde tasa artifiziala zen; ia-ia enplegu osoko tasak genituen; zorpetze maila izugarria; milioi bat etxe inguru saltzeke... Hori guztiori gainditzea gogorra da benetan eta datozen hamar urteak, hazkunde ekonomikoari dagokionez, urte galduak izango dira. Agian, 2015ean berreskura ditzakegu 2008an genituen errenta mailak.

**Nola baloratzen duzu Europaren eta Espainiako Gobernuaren jokaera?**

Europak lan eskasa egin du eta agerian geratu da Europako Batasuna ez dela gauza politika ekonomiko bateratua ezartzeko, eurozonako herrialdeen zorpetzea eta defizita kontrolatze aldera. Alemania izan da salbuespen bakarra eta, neurri handi batean, orain zortzi urte hartu zituzten neurriei esker gainditzen ari da krisia besteen aurretik. Gerhard Schröderren gobernu sozialistaren garaian eztabaida handia piztu zuten erreformak egiteko beharrean izan ziren.

BARNE PRODUKTU GORDINA

**"Krisialdi aurreko BPG ez dugu 2014. urtea baino lehen berreskuratuko"**

ETORKIZUNA

**"Gure mugak zeintzuk diren jabetzeko eta ekonomiaren berritzerako baliagarria bada krisia, gaitzerdi"**

EUROPA

**"Etxeko lanak bere garaian egiteagatik beste herrialde asko baino hobeto dabil Alemania gaur"**

Eurek ezarritako defizit fiskaleko baldintzak ez zituzten bete eta horren aurrean ongizate sistema (erabat astuna zena) eta gastu publikoa benetako kapazitate ekonomikora egokitzeko premia izan zuten. Neurri horiek hurrengo hauteskundeetan Schröderren porrota ekarri zuten, baina ikusi da etxeko lanak bere garaian egiteagatik beste herrialde asko baino hobeto dabilela Alemania gaur. Espainian ez daude funtzionario publikoak soberan eta Alemanian 20.000 inguru kaleratuko dituztela adierazi dute. Gurean, berriz, Jaurlaritzako funtzionarioen kasuan, soldata ere ez zaie jaisten...

Zapateroren sindromea, bestalde, zera izan da: uste izan du gauza handirik egin gabe dena martxan jarriko zela berriro, berez. Egin behar dena egiteko kapazitaterik eza da Espainiaren beste ezaugarrietako bat. Azken 50 urteotan, hazkundea izan dugun bakoitzean, besteak baino hazkunde handiagoa izan dugu (besteak beste, okerrago ginelako) eta behera egin dugunean beherago eta denbora luzeagoz izan da ia beti.

**Gutxienez, Euskal Autonomia Erkidegoan langabezia ez da Espainian bezain larria...**

Bai, elementu bakarra gure alde langabeziarena da. EAEn %10,40koa da eta Espainian bikoitza, %20tik gorakoa. Enplegua sortzeko beharrezkoa da %2 inguruko hazkunde tasa izatea, eta urrun dago hori. Hazkunde erritmo ezberdina dute Espainiak eta euskal ekonomiak; datorren urterako gurea puntu bat haztea aurreikusten da eta Espainiakoa puntu erdi baino ez. Bestetik, nazioarteko esportazioak handitu beharko genituzke, Europaren menpe egon barik. Txina, India eta horrelakoetan gure esportazioak %5 inguruan bakarrik geratzen dira. Enpresa teknologikoen kopurua ere txikia da, beste herrialde batzurekin alderatuta. Bide luzea dugu egiteko.

Abantailaz
betetako kluba!

Goiena kluba

# Atera etekina txartelari!




## Abantailak

- Goienkaria astelehenetan eta ostiraletan etxeko postontzian jasotzea
- Goienak antolatutako ekitaldi eta ikastaroetan prezio berezia
- Goienak kaleratzen dituen produktuetan prezio berezia: DVD kopiak, CDak, kamisetak, Goienkaria-ko Sailkatuak, eskelak, ekitaldietarako sarrerak... eta orain, opari eta deskontu paregabeak lortu ditugu zuretzat

**Eta gainera, Goiena Klubeko zozketetan parte hartzeko aukera izango duzu.**

## Deskontu bereziak

LILURA EDERTZE INSTITUTUA

**BERGARA (Bazkidearentzat eta lagunarentzat)**
- Laser depilazioa: hanka osoa + izterrondoa **-%15** + opari besapekoak (axilak).
- **-%20** elikagai-intolerantzia proban.
- **-%10** mikropigmentazioan: begietan, ezpainetan edo bekainetan.
- **-%10** fototerapia bidezko aknearentzako tratamenduan.

RENAULT AUTOBERRI

**ARRASATE/AZPEITIA/ELGOIBAR/IRUN/TOLOSA**
- **-%5** konponketetan, ez bada prezio itxia edo promozioa.
- **-%25** saltzen ditugun pneumatikoetan, urte osoan.
- Ordezkapeneko autoa 20 euro.
- Erosketetaren momentuan, goian aipatutako deskontua baino handiagoa badago, bezeroari deskontu handiena eskainiko diogu.

IKER SUKALDEAK

**ARRASATE/OÑATI**
- Sukalde osoa erosita, etxetresna elektriko bat opari.

Barceló BIDAIAK

**BERGARA/ARRASATE**
- **-%5** pakete konbinatuetan 600 eurotik gorako erosketagatik (eskaintza berezietan izan ezik).

ESTACIÓN DE SERVICIO ARRASATE (MECA) AVIA

**ESTACIÓN DE SERVICIO ARRASATE (MECA)**
**ARRASATE**
- **-%2** gasolindegian erregaia erosita.
- **-%2** dendako produktuetan.

MONDRAGON LINGUA

**ARRASATE /OÑATI (18 urtetik gorakoentzako bazkideentzat)**
- **-%15** ingeleseko eta euskarazko ikastaroetan, SISTEMA KONBINATUAN. Ikasturte osoan.
- **-%15** aurrez aurreko eskoletan.
  Eskaintzaren epemuga: 2010/03/01

naren FISIOTERAPIA ZENTROA

**ARETXABALETA**
- **-%15** zerbitzu guztietan.

CLINICA DENTAL BERGARA

**CLINICA DENTAL BERGARA**
**BERGARA (Bazkidearentzat eta familiako batentzat)**
- **-%10** zerbitzu guztietan
- **-%15** inplanteetan.
- 120 eurotik gorako tratamenduetan garbiketa doan.

TXURI-URDIN Donostia

**DONOSTIA**
- Bi erosi eta bat ordaindu ostiraletan, ez bada jaiegun, jaiegun bezpera, zubia edo oporraldia.
- **-%20** larunbatetan eta igandeetan, ez bada zubia edo oporraldia.
- **-%10** zubi eta oporraldietan.

AQUARIUM DONOSTIA-SAN SEBASTIAN

**DONOSTIA**
- Bi erosi bat ordaindu (sarrera garestiena ordainduko da).

LARRAÑAGA AUTOESKOLA

**BERGARA**
- **-%15** inskripzioa ordaintzean.

ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA KUTXAESPACIO DE LA CIENCIA

**DONOSTIA**
- Bi erosi eta bat ordaindu (sarrera garestiena ordainduko da).

**Enpresendako: Zure enpresa Goiena Klubean eskaini nahi baduzu jarri gurekin harremanetan.**

**Telefonoa: 943 25 05 05 | Posta-e: *kluba@goiena.com***

## kale inkesta

# Realak denboraldia hasi berri du. Nola ikusten duzu taldea lehen mailan?



**Moises Hernandez**
Langilea
Oñati

Ederto ibiliko da eta oso ondo geratuko da. Partidua irabazten hasi zen eta hori seinale ona da. Morala eta zaletasuna dago eta taldea ondo dago. Dena dela, erdilari erasotzailea falta dela iruditzen zait.



**M. Angeles Arriaran**
Langilea
Oñati

Ondo ikusten dut. Orain arte asko sufritu dugu eta hortaz, horrenbeste ez sufritzea nahi dut. Ez dakit zelan amaituko duen denboraldia, guri otoitz egitea tokatzen zaigu; baina ez dakit horrek funtzionatzen duen.



**Mari Karmen Arriaran**
Langilea
Oñati

Aurten goiko postuetan amaituko du; seguru nago. Oso zalea naiz eta Europan jokatuko duela iruditzen zait; nik, behintzat, indarrarekin ikusten ditut jokalariak. Zaleen animuak ezinbestekoak dira horretarako.



**Roberto Maiztegi**
Langilea
Oñati

Kategoria mantentzearekin nahikoa du Realak. Hasiera ona izan du baina, oraindik, luzea da bidea. Hainbat jokalari daude Lehenengo mailan esperientzia dutenak, baina beste askok ez, eta hortaz, ikusi beharko da.

## zorroztailea



**Larraitz Ugarte**

# Krisiaren iceberg-a: bizkarzainen gutxitzea

"Madrilgo eta Lakuako barne sailak hasi dira bizkarzain zerbitzuen gastuak txikitzen, eta horrek berriro gogorarazi ditu babes gastu horien atzean dauden interesak. Administrazio horiek bi motako premiak dituzte: gastuak txikitzea eta beste zeregin batzuetarako poliziak bideratzea"

Gara> 2010-09-03




Udan albisteak erlatibizatzeko joera daukagu gehienok. Baina iraila iristean ekaineko arazoek bere horretan edo okerrago dirautela ikusi ahal izaten dugu. Krisialdi ekonomikoa kasu. Herri-administrazioaren diru-zakuak geroz eta ahulago daudela argi geratzen ari da. Horrek administrazioa gastu publikoan mozketak eta aurrezte planak egitera bultzatu du. Gastu sozialean egongo dira mozketa gehienak, seguruenera hainbat gastu ukiezin mantenduko diren bitartean.

Baina ez gaitezen beti gaizki pentsatzen ibili. Krisiak guztioi eragiten digu (Albako dukesak egin zituen adierazpenak entzun besterik ez dago bestela, berari ere krisiak eragin diola esanez), eta pentsa zenbateraino, ze orain bizkarzainei tokatu baitzaie txanda. Ez da lehen aldia euren kexa laboralak entzun behar dituguna, baina oraingoan "lanpostu" ugari galduko omen dira eta ez dago berregituraketa planik ez EREri ez ezer horietako asko salbatuko dituenik! Izan ere, administrazioa bizkarzain postuak gutxitu, polizia-bizkarzain batzuk beste lan batzuetara bidali eta beste bizkarzain batzuk kaleratzea aztertzen ari da. Horretarako zaindu beharreko pertsona kopurua birdefinitu eta bizkarzain bat edo bi dagokien ikusi behar dute, baita lan hori enpresa pribatuen esku edo poliziaren esku geratu behar den ere.

**"Hemendik otsailera bitartean EAEn ia 145 milioi euro bideratuko dira 526 lagun babesteko; horrek ileak puntan jartzen dizkit niri"**

Behingoagatik Espainiar poliziaren SUP sindikatuarekin erabat ados nago. Zenbat jende dago babesik behar ez duena inork erasotzeko adinako estatusik izan gabe, estatus soziala lortzearen batzuk kaleratzea aztertzen bizkarzain bat gehiegi izan arren, birekin Euskal kostaldean uda honetan pasioan ibili dena? SUPen arabera %90a. Noski, EAEko Eskolta elkartea eta Espainiako eskolta elkartea guztiz aurka agertu dira. "Ileak puntan" jartzen omen zaizkie bizkarzainak saltzitzearen aurrean.

Zertan geratuko den ezin jakin baina datu bat esatearren EAEko aurrekontutik ia 145 milioi euro 526 pertsona babestera bideratuko dira hemendik otsaila bitartean. Neri bai jartzen zaizkidala ileak puntan.

## irakurlearen txokoa

# 943 25 05 05

## goienkaria@goiena.com

BERGARA

**> Zubiaurreko lan 'luzeak'**

Zubiaurre auzoko lanak direla-eta, Bergarako irakurle batek deitu digu esanez obra horien eraginez, bertako zubia aspalditik itxita dagoela eta erdigunera joateko buelta handia eman behar dela. Bergarar horrek jakinarazi digu obrak "derrigorrezkoak" direla, baina Udalari eskatu gura dio horien "iraupena eta eragina ere kontuan hartzeko".

LEINTZ GATZAGA

**> Autobus handiegiak, bide estuetan**

Debagoienean lan egiten duen arabar batek idatzi digu esanez PESAri zuzendutako kexa bat ezagutzera eman gura duela: "Gatzagatik barrena behin baino gehiagotan PESAko autobusekin gurutzatzen naiz eta bihurgune askotan atzera eman behar izaten dut. PESAri eskatzen diot Gatzagatik barrena autobus txikiagoak bidaltzeko". Horrez gain, arabar horrek beste kexa bat agertu du; eskatzen du Gatzagako bide zaharra konpontzeko.

ARRASATE

**> Zuztarrak Errotuzekoei, zorionak**

Arrasatear batek gugana jo du esateko Zuztarrak Errotuz talde berriaren ekimenari oso ondo deritzola, eta babesa agertu gura diela. "Bazen ordua norbaitek gure ondarea behar den moduan jaso eta gainontzeko belaunaldietarako jasotzeko. Nire asmo onenak beraiendako!".

## usteak uste

**Jon Berezibar**

# Zarata arazo larria da

Eskoriatzako neska-mutikoek oraingo ikasturtean Agenda 21 egitasmoaren barruan landuko duten gaia zarata da. Agian askori txikikeria iruditu ko zaie, baina zaratarekin egunero bizi behar dutenek ondo dakite amesgaizto bihur daitekela kaleko zarata.

Arazo larria da zarata, baina norena da ardura eta erantzukizuna? Taberna baten inguruan ala erdialdeetan bizi direnek egunero jasan behar dituzte kaleko zaratak, baina gauez tortura izan daiteke. Udan, adibidez, taberna kanpoan ordu txikiak arte egunero zarataka ibiltzen direnekin zer egin behar da? Tabernarena da erantzukizuna? Udaltzainena? Gizabide falta da?

Loa eragozten die askori zaratak eta ez da txikikeria. Harritu eta arduratu egingo gara, ziurrenik, Eskoriatzako neska mutikoen azterketarekin.

ASTELEHENEKO Goienkaria

**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • E05 Basabe Poligonooa • 20550 ARETXABALETA
**Lehendakaria** Estepan Plazaola **Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Monika Belastegi
**Asteburuko erredakzioaren arduraduna** Iker Barandiaran **Erredakzioa** Mirian Biteri, Julen Iriondo, Jon Berezibar **Oinarrizko diseinua** Goio Arana **Diseinu arduraduna** Iñaki Iturbe **Maketazioa** Kepa Martelo **Publizitate arduraduna** Mireia Larrañaga **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazio arduraduna** Agurtzane Gaintzarain

**EGOITZA NAGUSIA**
**BERGARA** 20570 Ibarra kalea 6 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: goienkaria@goiena.com

**ORDEZKARITZAK**
**ARRASATE** 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 00
Posta-e: arrasate@goiena.com
**ARETXABALETA** 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

**Publizitatea** Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09
Posta-e: publi@goiena.com

**Harpidetza** Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** SS-0088/04 • **ISSN:** 1697 3542 • **Tirada:** 5.000 ale • **Difusioa:** 4.383 ale

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

ASTELEHENEKO GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen IRITZIA orrialdean edo kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria

Gipuzkoako Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria



**> ARRASATE**
Arrasateko Txorbela otxoteak kontzertua egingo du Hondarribiko alardean **> 14**



**> BERGARA**
Murinondoko ermita auzoko bizilagunek berritu dute, gastuei euren kabuz aurre eginez **> 16**



**> OÑATI**
Arantzazuko eta Oñatiko saneamendu sareak lotuko ditu Gipuzkoako Foru Aldundiak **> 18**

**ESKORIATZA** > ESKOLA AGENDA 21

# Nekazaritza ekologikoa eta enplegu solidarioa, konpromisoen artean

**EKITATEA LANDUZ**
Ikasturtean zehar landutakoak aurkeztu dizkiete ikasleek ordezkari politikoei

**DIKTAMENA**
Proposamenak eta diagnosia entzunda, Hirigintza Batzordeak aztertu egin ditu

**JON BEREZIBAR** > BERGARA

Uztailaren 26an egindako ez-ohiko plenoan parte hartuta amaitu zuten Eskoriatzako ikasleek ikasturteko Agenda 21eko egitasmoekin.

Ekitatea izan da aurreko kurtsoko ardatza eta dagoeneko euren diagnosi eta proposamenak ordezkari politikoei aurkeztuta, berriz itzuliko dira neska-mutikoak buru belarri lanera; oraingo ikasturtean landuko duten gaia oso bestelakoa delarik: zarata.

Lanketa sakon eta zabala dakar Agenda 21 egitasmoak, are gehiago egokituriko gaia ekitatea izanik, zeinak genero berdintasuna edota hirugarren munduarekiko elkartasun jarduerak hartzen baititu.

Eskoriatzako kasuan, ikastetxeen eta Ibarraundi museoaren elkarlanarekin gauzatzen dute Agenda 21. Ekitatea inguratu asmoz, lau alorretan egin dute lan: lehen zikloko ikasleek – 1. eta 2. mailak, – etorkinak; 3. eta 4. mailakoek, elikadura-burujabetza; 5. eta 6. mailakoek, pertsonen artekolanen banaketa; DBHko 1. Zikloko ikasleek, pobrezia eta, azkenik, bigarren ziklokoek, migrazioa.

**ETORKINAK**

24 herrialdetatik etorritako etorkinak daude Eskoriatzan lehen zikloko ikasleen azterketaren arabera eta mapan kokatu eta haien hizkuntzak ezagutu dituzte. Udalaren harrera egiteko gidak hartu – euskaraz, gaztelaniaz eta portugesez daude – eta proposatu dutena da gida hori hizkuntza gehiagotan eskaintzea. Hori bakarrik ez, harrera are beroagoa egite aldera festa bat antolatzea ikusten dute etorkinen ohiturak ezagutu eta horrekin herria aberasteko.

**ELIKADURA**

Herriko dendetako salgaiak aztertu eta baserrien eta haietan bizi direnen zenbaketa egin zuten 3. eta 4. mailako gaztetxoek. Ondorio garbia atera dute hortik: Eskoriatzan ekoizten denarekin ez dela nahikoa herritar guztiei jaten emateko. Baserriek ekoizteari utzi eta produktuak urrundik dakartzatela nabarmendu gura dute ikasleek eta horren aurrean, besteak beste, proposatzen dute baserritarrei langabeak kontratatzen laguntzea, ortuan jarduteko ikastaroak antolatzea edota ikastetxe zein jatetxeetan herriko produktuen berri ematea.

**AUKERA BERDINTASUNA**

Pertsonen arteko lan banaketari egin diote aurre 5. eta 6. mailetako ikasleek lantokiak aztertuz. GOIENKARIAko sailkatuetara ere jo dute lan eskaera eta eskaintzaren profilak behatzeko helburuarekin. Ezusteko gutxi ere alor horretan emakumezkoei zuzenduak baitira zaintza, hezkuntza zein garbiketa lanak eta gizonezkoentzat eraikuntza nahiz udaletako brigadak. Iragarkien kasuan iradokitzen dute gizona edo emakumea behar dela zehaztea barik, "pertsona bat" izendapen neutroa erabiltzea.

**POBREZIA**

Horixe izan da DBHko lehen zikloko gazteen ardura. Udaletxera jo dute gizarte zerbitzuen baliabideak ikusteko, eta atzeman dute herrian badagoela beharra duenik eta Udalak bere aldetik eskaintzen dizkiela diru-laguntzak. Emaus erakundearen lana ere gertutik ikusi dute. Enpresa solidarioak sustatzea egokietsi dute ikasleek.

**MIGRAZIOA**

Azkenik, DBHko bigarren ziklokoek ekitateari migrazioen ikuspuntutik begiratu diote euren familietatik bertatik hasita eta konturatu dira oso familia gutxi dagoela kide guztiak bertakoak dituenak jatorriz.

Azterketa eta ondorio horiek aterata, plenoan aurkeztu eta hirigintza batzordeak diktamena egin du eskaerei erantzunez. (Jarraian datorren koadroa).

UDALAREN DIKTAMENA

## Erantzuna ikasleen proposamenei

**ETORKINAK**
- Ohiturak ezagutzeko festa bat egitea proposatzen dute. Udalak, egun, Garabide elkartearekin du horretarako hitzarmena.
- Harrera protokoloa hizkuntza gehiagotara itzultzea eskatu du. Udalak aztertuko du ingelesera eta arabierara itzultzea.

**ELIKADURA**
- Udala aztertzen dabil "Nekazalgune" bat egitea.
- Dendetan jada ematen da herriko ekoizkinen berri.
- Baserritarren aldetik Udalak ez du laguntza beharrik sumatu jendea kontratatzeko.
- **Nekazaritza ekologikoari buruzko ikastaroa antolatzeko konpromisoa hartu du Udalak.**

**AUKERA BERDINTASUNA**
- Goienkariko sailkatuei dagokienez, Udalak uste du iragarlearena dela erabakia.
- Irisgarritasun plana ere baduela dio Udalak.
- Emakume eta zailtasun fisikoak dituztenen eskubideen alde egiteari buruz diktamenak dio dagoeneko aurrera eramaten dela hori hobari fiskalen bidez.

**POBREZIA**
- Enpresa solidarioak eratzeko laguntzei dagokienez **Udalak asmoa dauka Enplegua Sustatzeko laguntzak ematea zeintzuetan elkartasun egitasmoek puntuak jasoko dituzten.**

**MIGRAZIOA**
- Ikasleek eskatu dute lehenbailehen aurrekontuen %0,7a garapen bidean dauden herrialdeetara bideratzea. Gaur egun Udalak hitzarmen bat badu modu progresiboan zifra horretara heltzeko; eta hori gehitzea eskatu dute Eskoriatzako ikasleek.



Uztailaren 26ko pleno berezia, neska-mutikoen partaidetzarekin. IBARRAUNDI MUSEOA

LEINTZ GATZAGA > ANDRAMAIXAK

# Egitarauaren murrizketari jai g diote aurre gatzagarrek jai nagu


Aurreikusi baino jende gehiago batu zen zapatuko herri afarian; 165 lagun izan ziren mahaiaren bueltan afaldu eta bertsolari eta trikitilariez gozatzen. JOSETXO ARANTZABAL



Mauri Zubillaga omendu zuten domekako pilota par


Eriz magoak Gatzagako eta kanpoko umeak liluratu zituen. I.BARANDIARAN


Egubakoitzean ibarreko hainbat punk talde aritu ziren agertokian. J.ARANTZABAL


Harriak jasotzen, gogor. J.A.

HERRITARREN IRITZIA


**Aratz Oñederra**
Leintz Gatzaga

"Aurten bigarren eskuko azokan ahalik eta gauza gehien saltzen aritu gara. Jaiei dagokionez, pena da aurten zezentxoak ez egotea. Zapatua izaten da egun onena, jende gehien egoten dena".


**Ana Esnal**
Leintz Gatzaga

"Eguraldi oso ona egin du, eta hori oso garrantzitsua da. Aurreko urteetan baino gauza gutxiago daude, baina gustura gabiltza. Onena herri afaria da, jaiak herritarrendako direlako".


**Sorkunde Pagaldai**
Eskoriatza

"Aspaldiko partez etorri naiz Gatzagako jaietara. Umeekin etorri gara puzgarrietara eta magoa ikustera, eta pozarren daude. Gustuko ditut hemengo jaiak, tamainan dira-eta ".


**Alluitz Lazkano**
Aretxabaleta

"Lehenengo aldia da amak hona ekarri nauena. Puzgarrietan ibili naiz eta ederto pasa dut; hurrengo urtean ere etorri gura dut. Gainera, hainbat lagun egin ditut hemen, Gatzagakoak".


**Txaro Arroniz**
Gasteiz

"Semea hemen bizi da eta tarteka etortzen gara, baina lehenengo aldia da jaietara etorri garena. Jaiak oso ondo daude; gainera, umeendako gauza ugari daude, eta hori eskertzekoa da".

# ogoz egin isian




tiduen ostean. JOSETXO ARANTZABAL

### Andramaixak Leintz Gatzagan

**7, Martitzena**
**19:00** Bederatziurrenaren bukaera Eskoriatzako abesbatzarekin. Ondoren gazta mokadutxoa Dorletako santutegian.

**8, Eguaztena**
**11:00** Otxandioarrei harrera Dorletan.
**12:00** Meza nagusia Eskoriatzako abesbatzarekin Dorletan.

**11, zapatua**
**14:30** Erretiratuen bazkaria.

Gazteen kontzertuak, herri afaria, umeendako ekintzak eta kirol hitzorduak izan dira izarrak

**IKER BARANDIARAN** > LEINTZ GATZAGA

Gatzagako jaiek eman dute onena, nahiz eta oraindik ez diren bukatu. Egubakoitzean etxafuego eta mezakin hasi zituzten, eta gauean jende asko hurbildu zen ibarreko talde gazteen kontzertuak ikustera.

Zapatu eguerdian helduak eta umeak ziren nagusi. Eguraldia lagun, txikienak puzgarrietan eta uso-tiroan ibili ziren; Aretxabaleta, Arrasate eta Eskoriatzako guraso dezente hurbildu ziren. Gerora, Eriz magoak umeen arreta bereganatu zuen eta hainbat truko erakutsi zizkien.

Arratsaldean, gerizpean, karta-jokoan aritu ziren eta honako hauek eskuratu zuten txapela: briskan, Matilde Arrese eta Igor Abasolo; eta musean, Aretxabaletako Etxabe eta Iturrikastillo.

**HERRI AFARI JENDETSUA**

Herri afarian jende asko batu zen eta jan ostean, mahaiaren bueltan jarraitu zuten Fermin Valencia bakarlariarekin kantuan eta Jokin Labayen eta Manex Agirreren elkar zirikatzeekin disfrutatzen. Gauak luze jo zuen, gero bolo txapelketa izan zuten-eta.

Domeka mendi bizikleta ibilaldi jendetsuak hasi zuen eta herri kirolek jarraitu zioten. Ez hori bakarrik, arratsaldean ibarreko pilotari gazteek partiduak egin zituzten; eta bukaeran, Mauri Zubillaga pilota sustatzailea omendu zuten.

UDALAREN BALORAZIOA

## Udaleko Kultura Sailak aurreikusi baino herritar gehiagok parte hartu du jaietan

Leintz Gatzagako Udaleko Kultura zinegotzi Ainara Zubillagarekin egon ginen atzo, domeka, jaien gainean hitz egiteko. Zubillaga oso pozik zegoen jaiek izan duten parte-hartzearekin. "Aurten murrizketa handiak egin behar izan ditugu jaietako egitarauan; baina, hala ere, gatzagarrek gau eta egun parte hartu dute antolatutako ekitaldietan".

Horrez gain, Zubillagak zapatuko herri-afaria nabarmendu zuen: "Aurreko urteetan dantza-taldeak ekarri izan ditugu afarira, baina jendeak afal ostean alde egiten du. Aurten, berriz, bakarlari bat, bertsolariak eta trikitilariak ekarri ditugu; hala, lortu dugu mahaiaren bueltan oso giro ona egotea; oso ondo dago". "Gainera, 150 lagunendako lekua egokitu bagenuen ere, 165 etorri ziren; eta hori Gatzaga moduko herri baten lorpen handia da", gehitu zuen zinegotziak.

Bitxikeri moduan, Zubillagari galdetu genion plazan jarritako bigarren eskuko azokaren gainean. "Herriko hainbat gaztetxoren ideia izan da. 1st Lego League txapelketan parte hartzeko 700 euro behar dituzte, eta horren bila, etxeko trasto zaharrak saltzen aritu izan dira asteburuan zehar. Ondo daude halako ekimenak, herritarrek eurek egiten badituzte, are eta gehiago".

**ELKARTASUNA** > SAHARARRAK

# Afari batekin agurtu dituzte Arrasaten egondako umeak

Eguenean itzuliko dira euren etxeetara udan, gure artean, egon diren 9 sahararrak; gustura ibili direla eta errepikatzeko asmoa dutela esan digute



Saharatik etorritako haurrak, egueneko afarian. USOA AGIRRE

**U.AGIRRE-M.BITERI** > ARRASATE

Haur sahararrekin agur afaria egin zuten joan den eguenean, Arrasateko Muxibar tabernan. Pasa den uztailaren 8,9 eta 10ean etorri ziren Arrasatera Aljeriako Tindouf herriko errefuxiatu kanpalekuko 9 haur sahararrak eta uda gurean pasa ostean, agur esan behar izan diote umeei.

Afarian haur sahararrak, euren etxeetan hartu dituzten familiartekoak eta Nubi elkarteko kideak izan ziren. Pizzarekin osatutako menua dastatu zuten guztiek ere, giro onean, baina agurrak dakarren tristurarekin. Eguenean utziko dute Arrasate.

**ERREPIKATZEKO ASMOZ**

Umeak, familiak eta Nubi elkartekoak pozik agertu dira aurten jasotako harrerarekin, eta hurrengo urtean errepikatzeko asmoa agertu dute. Fatma Mohamed Barekek esan digu Arrasate oso gustuko izan duela eta datorren urtean, itzultzea gustatuko litzaiokeela; lagun onak egin dituela ere aipatu digu. Arrasaten hiru urte daramatzan Minetu Tzeihak dio oso gustura izan zela, baina dagoeneko etxera itzultzeko gogoa duela. Mohamed Larbi Selma ere iritzi berekoa da: "Etxera joan nahi dut, baina, era berean, hemen ere geratu nahi dut". Horrez gain, jakinarazi digu bost uda pasa dituela Arrasaten eta dagoeneko lagun asko dituela.

Familiak ere gustura daude. Txomin Erostarberen esanetan, "bigarren urtea da ume bat hartzen dugula eta oso esperientzia polita da. Etxeko beste bat izango balitz bezala hartu dugu, gustura gaude".



GOIENKARIA

**OÑATI** > ARTZAIN EGUNA

## Jesus Zufiriaren lana txalotu dute

Jesus Zubiria artzain oñatiarra omendu zuten, urtero legez, irailaren lehen asteburuan, Legazpin egindako Gipuzkoako Artzain Egunaren harira. Zufiria pozik igo zen agertoki gainera, omenaldia jasotzera. Bestalde, egun berean, txakur txapelketa ere izan zen; Debagoieneko hiru ordezkari izan genituen han: Arrasateko Jesus Plazaolaren *Xoli*, bosgarren geratu zen; Oñatiko Migel Arregiren *Mendi*, zazpigarren; eta herri bereko Jose Luis Madinabeitiaren *Txiki* bederatzigarren.

**KULTURA** > TXORBELA OTXOTEA

# Arrasateko ahotsak Hondarribiko alardean, Txorbela otxotearen eskutik

Gabonetan Arrasaten egin gurako lukete kontzertua, etxean ez dutelako bat ere eskaini

Sanjuanetan Granadan egin zuten azkeneko saioa, unibertsitateak gonbidatuta



Txorbela otxoteko kantariak Sos Del Rey Catolico herrian (Zaragoza). TXORBELA

**UBANE MADERA** > ARRASATE
Jaioberria da Arrasateko Txorbela otxotea; bi urte ez ditu bete oraindik, eta otxoteen tradizioa lehen bezain indartsua ez izan arren, dagoeneko Arrasateren izena eraman du, besteak beste, Zaragozara eta Granadaraino. Oraingo asteko eguenean badute beste hitzordu bat, Hondarribian kasu horretan, hango alarde ezagunaren barruan.

Hurrengoa, baina, etxean gurako lukete, Arrasaten: "Ia pare bat urteren ostean Arrasaten kontzerturik eman ez izanak amorrua ematen digu, eta bagabiltza pentsatzen Udalarekin harremanetan jartzea ea lortzen dugun zerbait Gabonetarakoedo", dio Inazio Olaizolak, Txorbelako kideak.

**20-22 KANTUKO ERREPERTORIOA**
Gainera, Arrasateko otxoteak entzuteko moduko errepertorioa duela ziurtatu du Olaizolak: "Denetarik egiten dugu: polifonia, XV. mendeko musika, Santa Ageda bezperan kantatzen den *Hombres de fe* edo Garcia Lorcak idatzitako *Anda jaleo…*".

Izan ere, musikarekin eta, bereziki, kantuarekin lotutako eskarmentu handia duten gizonezkoek osatzen dute Txorbela. Hala ere, finak izaki, entsegutan buru-belarri dabiltza hasieratik eta kontzertua dagoen bakoitzean; hala aitortu du Olaizolak: "Hasieran, entseatzeko sekulako zailtasunak genituen, otxoteko kideak beste talde batzuetako partaideak ere bagara-eta; azkenean, domeketan egitea erabaki genuen. Hasierako entseguak gogorrak ziren, kantu guztiak berriak… orain arindu egin dira. 20-22 obra ditugu errepertorioan, eta horrek aukera ematen digu gauzak hobeto prestatzeko. Txorbelan gaude Goikobalun ibilitakoak, Goikobalun gaudenok, orfeoian, zarzuelan, Santa Agedako koruetan…".

**ZORTZI BAINO GEHIAGO**
Otxotea izan arren, zortzi lagunek baino gehiagok osatzen dute Txorbela: "Lehen, zortzi kidek osatutakoak ziren; gaur egun, berriz, badira batzuk hamabi kidekoak. Gure kasuan, zortzi baino gehiago gara. Zer gertatzen den? Sarri, lana dela eta ez dela, guztiek ezin dutela kontzertuetara joan; halakoetan, soka bat kili-kolo geratzen da, eta orekatzeko pertsona bat gehiago behar da; horregatik, soka bakoitzeko hiru gara".

## Txorbela otxoteko kideak

- > Jabi Alberdi
- > Mikel Arregi
- > Inazio Olaizola
- > Juan Bautista Agirre
- > Josetxo Urrutia
- > Tomas Axpe
- > Xabier Barriola
- > Jesus Mari Zabala
- > Mikel Balantzategi
- > Xabier Olabarria
- > J.J. Heriz
- > Jose Luis Azkarate
- > Angel Oruna
- > Iñigo Laboreria

**SANTA AGEDAKO KORUETATIK**
Otxotearen jatorriarengatik galdetuta, Olaizolak esplikatu du Santa Agedako koruetatik eratorritakoa dela: "Orain dela 18-20 hilabete elkartu ginen, koroetan ibilita ikusten genuelako kantu batzuk kili-kolo zeudela; horiek berreskuratzeko elkartu ginen; proiektu hura gorpuztu egin zen Txorbelan". Bestalde, gogora ekarri du Arrasateko historian badagoela otxoteekiko tradizioa: "Arrasaten bertan, 1969ko abenduan egon zen otxoteen arteko azken lehiaketa". Bukatzeko, otxotearen izenaren jatorria ere azaldu du: "Otxoteko kide bat bazkide da elkarte batean, eta elkarteari *Txorbela* ipini gura zion (*hostoa* esan gura du). Ez zuen lortu. Orain, sikiera, talde honi izena jarri dio".



UBANE MADERA

## Domekan itxiko dituzte kanpoko igerilekuak

Bukatzear dago uda eta horrek dakar, besteak beste, kanpoko igerilekuak itxi egingo dituztela. Domekan itxiko dituzte, irailaren 12an; sei egun daude, beraz, igerilekuez gozatzeko, argazkiko gazteek egiten duten moduan.

Behin kanpoko igerilekuak itxi ostean, gainera, hilabete batzuetan igerileku barik izango da Arrasate, kiroldegian egiten dabiltzan obren ondorioz barruko igerilekua itxita dago-eta. Bihar, martitzena, jakinaraziko dituzte gai horren gaineko xehetasunak kiroldegiko ordezkariek.

> ZARTZUELA

## Irailaren 13an hasiko dituzte entseguak zarzuelako kideek

Datorren astelehenean, gaur zortzi, hasiko dira berriro ere zarzuelako entseguak egiten Izaskun Murgia elkarte lirikoko kideak. 21:00etarako egin dute lehenengo hitzordua, Arrasate Musikalen. Irailaren 13tik aurrera, berriz, domekero entseatuko dute, 10:00etan hasita, Zerrajerako lokalean. Zarzuelan jardungo duten 100 lagun baino gehiago daude deituta entseguetara.

Aurten, Federico Chueca eta Joaquin Valverderen *La Gran Via* zarzuela prestatzen dabiltza; "obra desberdina", Tere Gonzalez zuzendariaren esanetan. "Kaleek berba egiten dute, abestu… eszena solteak dira. Hala ere, musika oso ezaguna da", gaineratu du. Azaroan izango da lan horren estreinaldia, azaroaren 20ko asteburuan.

> NAGUSIAK

## Abaroa berriaren estreinaldia asteon erabakiko dute

Abaroa egoitzako bazkideak zain daude, egoitza berria noiz estreinatuko; izan ere, Sanjuanetan nagusien omenaldirako Abaroa berriko ateak zabaldu bazituzten ere, ekitaldiaren ostean atzera ere itxi egin zituzten, egoitzako taberna zeinek kudeatuko duen erabakitzea falta da-eta oraindik.

Bada, justu oraingo, astean egin behar dute hori, eguenean, Gizarte Sailaren batzarrean. Bi eskaintzaren artean erabaki beharko dute zeini eman Abaroako taberna berria.

Hala ere, eta nahiz eta asteon erabaki hori, oraindik osoko bilkuraren onespena falta da egoitza zabaldu ahal izateko. Behin irekiera data jakinda, gainera, egoitza zaharretik berrirako lekualdaketa egin beharko dute.

**Eukene Mondragon** > Zuztarrak Errotuz taldeko kidea

# "Gurea izan arren, ez dugu herriko iragana ezagutzen"

JOKIN BEREZIARTUA > ARRASATE

**Iaz sortu zen Zuztarrak Errotuz taldea, herriko historia ezagutarazteko xedez. Abuztuan egin dute azken ekintza eta ez da oharkabean pasa, ez horixe: Ferreriasko plaza berriko etxe baten aurrealde osoa margotu dute, mural ikusgarri batekin. Elkarteko kide da Eukene Mondragon (Arrasate, 1956); harekin egon gara muralaz eta taldeaz berba egiten.**

**Iaz sortu zen Zuztarrak Errotuz. Zertarako?**

Gure herriko historia ez dugu ezagutzen eta ahal dugun neurrian gurea den iragana ezagutzera emateko helburuarekin hasi ginen elkartzen. Talde irekia gara eta edozeinendako daude ateak zabalik: eguaztenetan elkartzen gara udaletxean, 19:00etan.

**Zenbait ekintza egin dituzue dagoeneko. Nola baloratzen dituzu?**

Esango nuke orain arte helburuak bete direla. Nabarralde elkartearekin batera antolatu genituen lau hitzaldiak arrakastatsuak izan ziren; jende asko izan zen eta askok hartu zuten parte.

Bestalde, sanjuanetako bertso-traman ere jende asko batu zen Monterronen. Ea hemendik aurrera antolatzen ditugun ekintzek ere halako erantzuna izaten duten.

**Aurrerantzean egingo duzuen ekintzarik aurreratzerik bai?**

Arrasateko historia laburtzen duen erakusketa bat egin gura dugu Kulturateko klaustroan, azaro erdialdetik abendura arte. Erakusketa irekia egitea gura dugu, gai ezberdinak jorratuko dituena: euskara, kultura, emakumeak...

Dagoeneko hasi gara materiala biltzen eta horretarako herritarren laguntza oso garrantzitsua izango da. Beraz, etxean aspaldiko argazki edo bestelako material interesgarria izan dezakeen herritarrei dei egiten diegu material hori uzteko; asko eskertuko dugu. Horrez gain, adituak direnei laguntza eskatzen ere ari gara. Izan ere, gu ez gara adituak, lanean dihardugun herritar talde bat baino ez gara.

> **"Gu ez gara historian adituak, lanean dihardugun herritar talde bat baino ez gara"**

**Ekintzen artean Ferreriasko plaza berriko murala izan da zuen azkena. Kontaiguzu zer erakutsi gura duzuen.**

Muralaren goialdean Udalatx agertzen da eta hortik harria Ferrerias kaleraino ekartzen zela islatu gura izan dugu. Hau da, muralak erakusten du harriak egiten zuen bidea Ferrerias kalean burdin bihurtu arte.

**Nola gauzatu duzue ideia?**

Zuztarrak Errotuz taldeak zituen proiektuen artean aurkitzen zen Arrasateko historiarekin zerikusia zuen mural bat margotzea herriko txokoren baten. Hasieran Gelmako bidean [Gipuzkoa etorbidea] egitea genuen buruan, baina Ferreriasko plaza berria egin zenean taldeko kide batek bertan egitea proposatu zuen, toki aproposa zelakoan.

Hala, Kepa Altube *Kopi*-rekin jarri ginen harremanetan eta berak diseinatu zigun zirriborroa. Gero Udalera jo genuen zirriboroarekin eta aurrekontuarekin, eta behin Udalaren baimena jasota, bizilagunekin egon ginen. Oso ideia polita eta egokia iruditu zitzaien, eta *Kopi*, Danel, Edu, Zakari eta Luisitok margotu zuten.




Eukene Mondragon, abuztuan egin duten murala atzean duela. J.B.

ZUZTARRAK ERROTUZ

## Herriaren historia arakatzeko asmoz sortua

Aurten Arrasatek Hiri Gutuna jaso zuela 750 urte bete direla-eta, gure herriko historian arakatu asmoz sortu zen Zuztarrak Errotuz elkartea, hainbat herritarren ekimenez. Apirila eta maiatza bitartean zenbait hitzaldi antolatzea izan zuten lehenengo helburua ondo baino hobeto bete zuten. Izan ere, udaletxeko osoko bilkura lepo bete zen ia hitzaldi guztietan. Bigarren ekintza, berriz, Sanjuanetan egin zuten bertso-trama izan zen eta hirugarrena, abuztuan Ferreriasko plaza berrian margotu duten murala. Orain, hurrengo erronkarekin ari dira buru-belarri: herriko historia laburtzen duen erakusketa; azaroan, Kulturateko klaustroan.

**JENDARTEA** > MUGIKORTASUN ASTEA

# Zapatuan, hilak 11, hasiko dira Birzikleta azokarako materiala batzen, udal azokan

Mugikortasun Astearen barruan egingo den azokarako bizikleta eta osagarriez gain, patinak, patineteak eta halakoak batuko dituzte

J.B. > ARRASATE

Edozein lekutara joateko autoa hartzera ohituta dagoen herriak ezohiko egoera biziko du irailaren 16tik 22ra. Izan ere, beste urte batez Mugikortasun Astea ekarriko du Udalak Arrasatera.

Eta beste era batera mugitzea posible dela erakusteko, hamaika ekintza izango dira aste osoan zehar.



Birzikletarako materiala, udal azokan. GOIENKARIA

**BIRZIKLETA TAILERRAK, HUTSIK EZ**

Ekintzon artean aurkitzen dira erakusketa, tailerra, bide hezkuntza... eta nola ez, Birzikleta azoka. Aurten ere ez du hutsik egingo eta antolatzaileek zehaztu dituzte dagoeneko azokara materiala jasotzeko datak.

Irailaren 11n hasiko dira material hori batzen, udal azokan. Edozein motako bizikletak –mendikoak, paseokoak, haurrenak...–, bizikletarako osagarriak –kaskoak, gurpilak, belozimetroak, mailotak, gurpilak...–, patinak, patineteak eta halakoak eraman daitezke udal azokara; gero, Birzikleta azokan salgai ipintzeko. Irailaren 11z gainera, irailaren 14an eta 16an ere eraman ahal izango da materiala. Izan ere, Birzikleta azoka irailaren 18an–zapatua– egingo dute, Seber Altuben, 11:00etatik 15:00ak arte.

Birzikletaz gain, besteak beste, Segway, Trikke –hiru gurpildun ibilgailua– eta Roller patinajea) zirkuituak izango dira.

**MUSIKA** > JAIALDIA

# Itxungi irrati libreari beste bultzada bat ematera dator 'Itxungi Rock', zapatuan

Jaialdiaren bigarren edizioa 18:00etan hasiko da, gaztetxean, eta zazpi taldek joko dute; horietatik bost Debagoienekoak dira

J.B. > ARRASATE

Itxungi irrati librearendako dirua lortzea helburu, *Itxungi Rock* jaialdiaren bigarren edizioa ospatuko da zapatuan. Zazpi taldek hartuko dute parte 18:00etan hasiko den rock maratoian: Never Surrender, Las Flujo, Plan B, La otra cara del rock, Interprete Desconocido, CC-627 eta La banda del abuelo; zazpitik bost Debagoienekoak dira. Sarrera hiru eurotan jarri dute.

**"LASTER" AIREAN**

Egun Itxungi ez dago airean, baina "laster" emititzen hasiko direla jakinarazi digu irratian dihardun kide batek.

> ZINEMA

## '80 egunean', Mariasun Pagoaga protagonista duen filma, egubakoitzean Monterronen (22:30)

Mariasun Pagoaga aktore arrasatearra protagonista duen *80 egunean* filma egubakoitzean helduko da Arrasatera. Aktore moduan Doke antzerki taldean *jaio* denaren lehen lana etxera dator, beraz. Filma 22:30ean hasiko da eta Monterrongo zinema emanaldi guztien antzera, doakoa izango da sarrera. Udako zinema eskaintza itxiko du filmak. Pagoagaren lehen filma izan da *80 egunean* eta oso kritika onak jaso ditu. Egindako lanak ateak zabaldu dizkio Pagoagari eta uda Bernardo Atxagaren *Bi Anai* eleberrian –Obabakoak liburutik– oinarritutako filmean izan da lanean.

**JENDARTEA** > AUZOAK

# Ermita auzolanean berritu dute bizilagunek Murinondo auzoan

Barruko aldetik eraberritu dute eta gastuari aurre egin diote urtetan ermitara joan diren eliztarrek utzitako diruarekin

**MONIKA BELASTEGI** > BERGARA

Murinondoko bizilagunek auzoko ermita zaharberritu dute berriki. Eurek egin dute zaharberritze lan guztia, auzolanean, "San Blas ermitak beharra zuelako eta merkeago egin ahal izateko", Asier Gabilondo auzotarraren esanetan. Izan ere, nahiko egoera kaskarrean zegoen ermita barruko aldetik, aspaldiko urteetan ez da-eta inongo egokitzapenik egin.

Apirilean hasi ziren eta abuztuan bukatu dituzte lanak. "Hasiera baten obra txikiagoa zela pentsatu genuen", esan du Gabilondok: "Baina gauza bat ondo ipintzerakoan, horrek beste hainbat ondo jartzen behartu gaitu", gehitu du.

**HARRI EDERRA BISTARATU DUTE**

Ermitako barruko hormak konpontzea izan da zeregin nagusia, egoera kaskarrean zeudelako. Horren harira, ezustea izan dute auzotarrek: "Hormak konpontzeko lanean hasi eta azpian harri ona zegoela konturatu ginen. Hori horrela, harria bistaratu eta landu egin dute", azaldu du Murinondoko auzotarrak. Hain justu ere, horixe izan da egin duten lan nagusia eta ermita nabarmen itxuraldatu duena. Horrekin batera, aldareak ere tratatu eta zaharberritu egin dituzte eta baita santuen irudiak ere.

**HARRI EDERRA BISTARATU DUTE**

Eskulan guztia auzotarrek –eta musu-truk, gainera– egin dutenez, aurrekontua merkeagoa izan da. Gabilondoren esanetan: "6.000 euro inguru gastatu ditugu".

Kopuru horri egin diote aurre urtetan barrena eliztarrek San Blas ermitan eman izan duten diruarekin.

Eguaztenean, hilak 8, San Blas eguna da, eta, urtero bezala, meza egongo da 19:00etan. Ermitaren itxura berria ikustera joaten nahi duenak hortxe du aukera.





Goiko irudian ikus daiteke San Blas ermitak berritu aurretik –ezkerrean– zeukan itxura eta berritu ostean –eskuma– erakusten duena. ASIER GABILONDO

**UDALA** > EUSKARA ZERBITZUA

## Kirol Zerbitzuetan euskara bultzatzeko plangintza abiarazi du irailean Udalak

Jarraibide batzuk oinarri hartuta erabiltzaile guztien hizkuntza eskubideak zaindu nahi dituzte

**M.B.** > BERGARA

Udaleko Kirol Zerbitzuetan euskararen erabilera bultzatzeko plangintza abiarazi du aurten ere Udaleko Euskara Zerbitzuak irailean. *Kirola euskaraz* programaren barruko plangintza da –Debagoieneko eta Debabarreneko udalek elkarlanean sortua–, eta, haren bitartez, erabiltzaile guztien hizkuntza eskubideak zaintzeko ahalegina egin nahi dute. Hori horrela izanik, egoera horiek ondo gestionatzeko Debarroko udal kiroldegi guztietan jarraitu beharreko hizkuntza jokabideak erabaki dituzte.

**INFORMAZIO KANPAINA**

Horrekin guztiarekin, alde batetik, irailean izena ematen duten erabiltzaileei jarraibideok jasotzen dituen eskuorria banatuko diete; beste aldetik, monitoreei ere hizkuntza irizpideak batzen dituen eskuorria banatuko diete, eta, hori emateaz gain, zuzenean ere azalduko dizkiete. Horrekin guztiaren batera, kirol instalazioetan kartelak jarriko dituzte.

**HIRU HIZKUNTZA MAILA**

Hiru talde mota hartu dituzte aintzat jarraibideok ezartzeko orduan. Taldeko ikasle guztiek euskara ulertzen duten kasuetan, ikastaroa euskaraz emango du monitoreak. Ikasleen erdiak baino gehiagok ulertzen duenean euskara, ikastaroa nagusiki euskaraz emango du monitoreak, baina premiazkoa ikusten duenean, laburpena edo bakarkako azalpenak gaztelaniaz emango dizkio euskaraz ondo ulertzen ez duenari. Azkenik, ikasleen erdiak baino gutxiagok ulertzen badu euskara, ikastaroa nagusiki gaztelaniaz izan arren, euskarari sarbidea emango dio monitoreak, halakoekin: agurrak, animaziozko hitzak, zenbakiak eta horrelakoak erabiliz, eta euskara ulertzen dutenei bakarka zuzentzean euskaraz eginda.

> ERAKUSKETA

### Bearteko akuarela margolarien lanak ikusgai Nahikarin

Beart elkarteko akuarela margolariek erakusketa jarri dute Nahikari tabernan. Kute Erdabide, Pili Azkarate, Mari Paz Alustitza, Maite Azkargorta, Anton Arrillaga eta Ricardo Azkargorta dira erakusketa jarri duten margolariak. Ikusgai egongo da irailean barrena.

Bestalde, Bearteko ikasleek beste erakusketa bat ere izango dute ikusgai irailean. Hain justu ere, Ricardo Azkargortaren ikasleen lanak ikusgai egongo dira osoko bilkuren aretoan irailaren 27an hasi eta urriaren 16ra arte honako ordutegian: astelehenetik egubakoitzera, 18:00-21:00 eta zapatuetan, 12:00-14:00.

**oharrak**

ELKARTASUNA

**> Udalbiltzaren kamisetak jarri dituzte salgai**

Arrano tabernan daude salgai, 10 euroren truke.

HEZKUNTZA

**> Irailaren 6an hasiko dute ikasturtea Aranzadi ikastolan**

Haur Hezkuntzako ikasleen kasuan, 3 urtekoak 10:00etan hasiko dira eta 4 eta 5 urtekoak, 09:30ean; Lehen Hezkuntzakoak 09:00etan hasiko dira; DBHko lehen mailakoak 10:30ean hasiko dira; eta 2. 3. eta 4. mailakoak, 11:00etan. Batxilergoko ikasleek, berriz, 11:00etan ekingo diote ikasturteari. Bestalde, Seminarioko obrengatik ikastolarako sarrera nagusia itxita dagoenez, Lehen Hezuntzako eta batxilergoko ikasleak patiotik sartuko dira.

HEZKUNTZA

**> Musika Eskolan irailaren 7an hasiko dute ikasturtea**

Ikasturteko zerrendak sarrerako taulan daude ikusgai irailaren 6ra arte, 09:00-13:00 ordutegian, eta irailaren 7tik aurrera, arratsaldez. Bestalde, instrumentu-eskoletarako ordutegia hartzeko irailaren 6an joan beharko dute ikasleek eskolara. Musika Eskolatik jakinarazi dute irailaren 20ra arte izena emateko aukera dagoela.

KINTADA

**> 1942an jaiotakoek (63ko kintoek) bazkaria egingo dute**

Irailaren 25ean egingo dute, Azpeitxin –gizon zein emakume–, 14:30ean. Izena ematerakoan 20 euro aurreratu behar dira Edel oihaldendan edo Azpeitxi jatetxean, hilaren 21a baino lehen. Mugaegunetik kanpo ez da inor onartuko.

JENDARTEA > ARAUDIAK

# Espetxe zigorra herriaren aldeko lanekin ordezkatzeko araudia onartu du Udalak

Ez dira onartuko adin txikikoen aurkako delituak zein genero indarkeria gisa kalifikatutakoak dituzten pertsonak; araudia dagoeneko indarrean dago

MONIKA BELASTEGI > BERGARA

Udalak onartu du araudi berria espetxe zigorrak herriaren alde lan eginez ordezkatu ahal izateko. Halako araudirik ez zuen orain arte Udalak, baina hainbat eskari jaso dituztenez, egitea erabaki dute eta dagoeneko indarrean dago. Hain justu ere, uztailaren 21a ezkero dago indarrean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik.

Araudiaren helburua da Bergaran bizi direnen espetxe zigorrak Bergarako herriaren alde lan eginda betetzeko aukera ematea.

**BETE BEHARREKO BALDINTZAK**

Eskaria egiten duen pertsonak honako baldintzak bete beharko ditu: batetik, Bergaran erroldatuta egotea sententzia irten aurreko egunetik eskaria egiten denera arte, eta esandako lana egiten dagoen bitartean; bestetik, ez dira onartuko adin txikikoen aurkako delituak zein genero-indarkeria gisa kalifikatutako delituak dituzten pertsonak. Hala ere, Udalak kasuak banaka aztertuko ditu, eta delitu motaren arabera eskaerak ez onartzeko aukera izango du –arrazoiak azalduko ditu–. Azkenik, lanpostuen eginkizunak normal betetzea galaraziko dion gaixotasunik nahiz muga fisiko edo psikikorik ere ezingo du izan eskatzaileak.

**BERGARAREN ALDEKO LANA**

Espetxe zigorraren ordezko lan horiek momentu bakoitzean Udalak dituen beharren arabera definituko dira. Eta Udalean, Mizpirualde zaharren egoitzan edo Udal Euskaltegian egingo da lan. Eskaera egiten den momentuan Udalak lanik edukiko ez balu, eskaera ez onartzeko aukera izango luke.

**LANSAIOAREN EZAUGARRIAK**

Lan-jardunak bi orduko iraupena izango du. Lanegun baten bi orduko bi jardun egin ahal izango dira gehienez, eta aste bakoitzean gutxienez bi lanegun beteko dira. Hala eta guztiz ere, eskatzaileak planteatutako lan-jarduna eta ordutegia eta Udalaren interesak ez badatoz bat, Udalaren interesak izango du lehentasuna eta, horrenbestez, Udalak eskaera ez onartzeko arrazoia ere izango da.

Bestalde, zigortuak egingo duen lanak ez du Udalarekin lan harremanik sortuko eta ez du ordaintzeko eskubiderik sortuko.

**ESKARIAK EGITEKO MODUA**

Espetxe zigorra Bergararen aldeko lanekin ordezkatu nahi duenak eskaera idatziz egin beharko du. Eskaera orria Erregistro Orokorrean aurkeztuko da, Pertsonal Sailak aztertu eta baloratuko du eta aldeko edo kontrako proposamena Gobernu batzordera bideratuko du, erabakia har dezan. Erabakia idatziz jakinaraziko zaio eskatzaileari. Lanaldia amaitutakoan idatzizko ziurtagiria emango dio Udalak eskatzaileari zein lan egin duen eta noiz hasi eta amaitu duen esanez, eta izandako jarrera azalduz.

txaloak eta txistuak

## Espoloiko ziburuak aspaldi apurtuta

Irakurle batek ondoko argazkia eta kexua helarazi dizkigu. Dio Espoloiko ziburuak azken hilabeteetan lagata daudela: "Txirrista apurtuta dago eta bueltak ematea helburu duen ziburua ere bai". Eta gehitzen du: "Eskertuko nioke Udalari lehenbailehen konpontzea ziburuok, badira hainbat hilabete apurtuta daudena-eta".



GOIENKARIA

KULTURA > ANTZERKIA

## Zirika Zirkus taldearen ikuskizuna Irala kalean

Egubakoitzean izango da, 18:30ean, eta 'Ilargian' ikuskizuna egingo dute

M.B. > BERGARA

Jardun elkartearen eskutik kale antzerkia ikusteko aukera egongo da datorren egubakoitzean. Hain justu ere, Zirika Zirkus talde ezagunak *Ilargian* zirku ikuskizuna egingo du, 18:30ean, Martinez Irala kalean.

**ANTZERKIA BAINO GEHIAGO**

Antzerkia eta zirkua uztartzen dituen taldearen lan berriak Bolintxeren pasadizoak kontatzen ditu. Bolintxe oso erromantikoa da eta ilargiari lore sorta oparitu nahi dio. Krispetak eta Loretsuk, zein despistatua den jakinda, ez dute bakarrik utziko. Sekulako akrobaziak egingo dituzte elkarrekin.

ZERBITZUAK > KZGUNEA

## Abian dira KZgunean iraileko ikastaroak; doan, ohi bezala

Zentroa kultura etxeko behe solairuan dago Irizar etxea konpontzen dihardutenetik hona

M.B. > BERGARA

Dagoeneko ireki ditu ateak opor ostean KZguneak eta ikastaroei ere ekin diete. Hortaz, ohi bezala, irailean ere askotariko ikastaroak egiteko aukera egongo da, doan. Honako hauek, hain justu ere: hilaren 6tik 17ra (16:00-18:00), 13tik 14ra (09:00-1:00) eta 20tik urriaren 1era (18:00-20:00) *Internet+e+Administrazioa* ikastaroa egingo dute; hilaren 7an *Web nabigatzaileak* (09:0011:00); 8an, *Picnik* (18:00-20:0); 9an, *Ubuntu* (09:00-11:00); 14an, *Quicktime* (11:00-13:00); 15ean, *Google itzultzailea* eta *Euskalterm* (18:00-20:00); 18an, *Skype* (11:00-13:0); 21ean, *Aldagai kontzeptualak eta blogetan bilaketak egiteko erremintak* (11:00-13:00); 22an, *Sinadura elektronikoa* (16:00-18:00); 23an, *Goole maps eta Earth* (11:00-13:00); 27an, *Sare sozialak* (16:00-18:00; 30ean, *Audacity oinarrizkoa* (09:00-11:00); eta urriaren 1ean, *Goolge sites* (09:00-11:00).

**KULTURA ETXEAN DAGO**

Izena emateko edo informazio gehiagorako 943 76 35 10 telefono zenbakira deitu behar da, edo *tutor.bergara@kzgunea.net* helbidera idatzi. Bestalde, gogoratu beharra dago KZgunea kultura etxeko erakusketa aretoan dagoela kokatuta behin-behingoz, Irizar jauregia zaharberritzeko lanak bukatu bitartean.

Gunearen ordutegia da astelehenetik egubakoitzera, 09:00-13:00 eta 16:00-20:00.



Ane Untzurruntzaga da KZguneko arduraduna. MONIKA BELASTEGI

JAIAK

## Danborraden entseguak gaur hasiko dira

San Martin jaien atarian gaude, eta, hori horrela, danborradetarako entseguak hastear daude. Hain justu ere, gaur, astelehena, hasiko dira eta izango dira 7an, 8an, 9an, 13an eta 14an, ume zein nagusien danborradetakoak. Ordutegiari dagokionez, umeen entseguak izango dira 19:00-20:00 ordutegian eta nagusienak, 20:00-21:00 ordutegian, biak Seminarioko jolaslekuan.

Bestalde, gaur bukatuko da izenematea –12:00etan– berdurak kontserban egiteko ikastarorako. Izenematea da kultura etxean edo 943 77 91 59 zenbakian.

SANEAMENDUA > LANAK

# Arantzazuko eta Oñatiko saneamendu sareak lotuko dituzte

Lanak urte bukaeran hasiko dituzte eta Foru Aldundiak finantzatuko ditu; hodi biltzaile batek eramango ditu urak Urtiagaineraino

**MIREIA BIKUÑA** > OÑATI

Arantzazuko eta Oñatiko saneamendu sareak lotu egingo dituzte Urtiagainen. Lanak urte bukaeran hasiko dituzte, eta Foru Aldundiak finantzatuko ditu osoosorik. Guztira, 1,5 milioi euroko aurrekontua. Hala baieztatu du Garapen Iraunkorreko diputatu Carlos Ormazabalek.

Lanak sei hilabeteko epean egingo dituzte Girder Ingenieros SL enpresak egidako proiektua aintzat hartuta. Ormazabalek gaineratu du eragin handien duten lanak neguko hilabeteetan egingo dituztela, "Arantzazura bisitari gutxien joaten diren hilabeteak" dira-eta.

**BI PONPAKETA-PUTZU**

Lanak egingo dituen ingeniaritza enpresak idatzitako saneamendu proiektuaren arabera, 5,3 kilometro hodi jartzea aurreikusten dute; horien artean daude frantziskotar santutegian jarriko dituzten hodi nagusia eta bi adarrak. Hodi biltzaileak eramango ditu urak Urtiagaineraino eta han egingo du bat Oñatiko saneamendu sarearekin.

Instalazio berriak bi ponpaketa-putzu izango ditu: Arantzazun bata eta Urtiagainen bestea.

**HODI NAGUSIA ETA BI ADAR**

Saneamendu sare berriaren lehen adarrak 129 metro luze izango ditu, eta Sindika ostatuko urak bilduko ditu, egun dagoen sarearekin bat egiteko. Bigarren adarrak, aldiz, Topaguneko eta harrera-lekuko isurketak santutegiaren sarreraraino eramango ditu. Han bat egingo du monasterioko barne sarearekin. 130 metroko luzera izango du bigarren adarrak.

Behin Arantzazuko isurketa guztiak bilduta, bost kilometroko hodia sartuko dute Urtiagaineraino, eta han bat egingo du Oñatiko saneamendu sarearekin. Urtiagaindik gertu dagoen harrobian jarriko dute ponpaketa-putzua. Bost kilometroko hodia lurperatuta joango da errepidearen eskuineko bazterrean, Arantzazu-Oñati noranzkoan.




Arantzazu hotelaren ondoko espaloian dagoen kutxatila. GOIENKARIA

ESANAK

**"Eragin handiko lanak neguan egingo dituzte, bisitari gutxiago daudelako"**

**Carlos Ormazabal** > Diputatua

Bestalde, frantzikostarren komentuaren barruko isurketak biltzeko sisteman egin beharreko lanak eurek egin beharko dituzte.

Ormazabalek gaineratu zuen lanak bukatu ondoren kaltetutako habitatak berreskuratuko dituztela. Bestalde, esan zuen apurtzen dituzten hesiak eta hormak konpondu egingo dituztela.

**2008KO LANAK OSATZEKO**

Lanei esker Arantzazuko ingurunearen saneamendu sistema orokorra osatuko dute (2008an egin zuten zati bat). Orduan, ostatuaren eraikin zaharraren azpian sartu zuten frantziskotarren santutegi atariaren atzealdeko ponpaketa-putzua.

DATUA

**1,5**
**MILIOI EURO**

Horixe da Arantzazuko eta Oñatiko saneamendu sareak lotzeko lanen aurrekontua. Carlos Ormazabalek esandakoaren arabera, Foru Aldundiak ordainduko du diru guztia.

DATUA

**5,3**
**KILOMETRO**

Luzera hori duen hodi biltzailea egingo dute Arantzazuko urak Urtiagaineraino bideratzeko. Hain justu ere, bi leku horietan –Arantzazun eta Urtiagainen– jarriko dituzte ponpaketa-putzuak.

> MUSIKA

### Ruper Ordorikaren kontzerturako sarrerak salgai daude kultura etxeko bulegoan hamar eurotan

Ruper Ordorikaren kontzerturako sarrerak aurrez eros daitezke dagoeneko. Kultura etxean dituzte salgai, egunero, 16:30etik 20:30era, hamar eurotan. Kantari oñatiarrak zuzenekoa egingo du hilaren 17an Santa Ana antzokian, 20:30ean. *Haizea garizumakoa* diskoa aurkeztuko du.

> DEIALDIA

### Yoga eskolak hastapen ikastaroa egingo du, zortzi egunean, ikasturtea hasi aurretik

Oñatiko yoga eskolak hastapen ikastaroa egingo du datozen egunetan. Hain zuzen ere, hilaren 13an, 14an, 15ean, 16an, 20an, 21ean, 22an eta 23an emango dituzte eskolak 19:00etatik 20:30era arte. Ikastaroa yoga eskolak Bidebarrietan duen lokalean emango dute. Oinarrizko kontzeptuak erakutsiko dituzte. Izena emateko 610 95 37 94 telelefonora dei daiteke.

> DEIALDIA

### Ilunpetan taldeak antolatutako argazkigintza ikastaroko izenemate epea zabalik dago

Ilunpetan argazki taldeak antolatu duen ikastaroko izenemate epea zabalik dago. Interesatuek *ilunpetan@gmail.com* helbidean eman dezakete izena. Luis Arellano izango da *Argazkien estetika eta irudien azterketa* delako ikastaroko irakaslea. Eskolak la zapatutan emango ditu; hain justu ere, urriaren 23an eta 30ean eta azaroaren 6an eta 13an, 10:00etatik 14:00etara.

## oharrak

BIRZIKLAPENA

**> Baserriko plastikoak batuko dituzte hilaren 28an**

Lau puntutan jasoko dute plastikoa: Zañartun, Zuazola inguruan; Murgian, Asentzio ermita ondoan; Olabarrietako autobus geltoki ondoan; eta Enpresagintza ikastetxearen atzealdean. Siloa estaltzeko eta belar boletako eta berotegietan erabiltzen den plastiko beltza eta zuria batuko dituzte.

INFORMATIKA

**> KZgunean askotariko ikastaroak egingo dituzte irailean**

Abuztuan itxita egon ondoren, KZgunean askotariko ikastaroak egingo dituzte; besteak beste, *Google tresnak*, *Youtube*, *Sinadura elektronikoa*, *Google Maps eta Earth* eta *Ebay* delako ikastaroak egingo dituzte. Informazio gehiagorako edo izena emateko 943 08 16 34 telefonora dei daiteke.



MIREIA BIKUÑA

## Zubillagako zubia, ondo bidean

Zubillagan, suhiltzaileen ondoan eraikitzen diharduten zubia ondo bidean doa. Dagoeneko hasi da bukaeran izango duen itxura hartzen. Zubi abangoardista izango da. Bestalde, bukatzear daude Zubillagan uholdeak ekiditeko egiten diharduten lanak. Zubia bukatzen dutenean zabalduko dute errepide berria.



Basagoitiko bide-zubiaren eraikuntza obrengatik kaltetutako zatia. M.A.

**ARETXABALETA** > INGURUMENA

# Basagoiti eta Izurietako lanak hastear daude

570.000 euro inbertituko ditu Basagoiti inguruan kaltetutako errepide zatia konpontzeko eta 207.000 euro Izurieta auzokoa berritzeko

**MIRARI ALTUBE** > ARETXABALETA
Eibar Gasteiz autobidearen eraikitze lanek hainbat kalte eragin zituzten gurean, eta Bidegik horiek konpontzeko konpromisoa hartu zuen. Dagoeneko izendatu ditu konponketa lan horiek egingo dituzten enpresak eta datarik zehaztu ez arren, laster hasiko dituztela uste du Udalak.

**800.000 EUROKO LANAK**
Ia 800.000 euro inbertituko ditu Aldundiak gurean. Batetik, GI-3920 (Aretxabaleta-Aramaio) errepide zatia konponduko du, Basagoitiko bide-zubiaren eraikuntza obrengatik kaltetua gertatu zen zatia, hain zuzen. Errepidearen trazadura desbideratu egin zuten bide-zubiaren zutabea egiteko, eta ondorioz, Basagoitiko ubidea ere desbideratu beharra egon zen. Inguru hori berreskuratzeko GI-3920 errepidearen trazadura berria birgaituko dute, bide-zubitik gertu.

Bidegik 570.000 euro inbertituko ditu lan horietan eta bederatzi astetan egin beharko dituzte. Lanok Proyectos y Obras Pobisa SA enpresaren eskuetan utzi ditu.

**IZURIETAKO ERREPIDEA**
Bestetik, Izurieta auzora doan errepidea (GI-3132) hondatuta geratu zen, ibilgailu astun askoren joan-etorria jasan behar izan zuelako. Errepidearen higadura dela eta, bide-zoruak konpondu beharra duela esan zuten adituek. Lan horiek Campezo Construcción enpresak egingo ditu, 207.000 euroko aurrekontuarekin eta bi hilabete beharko dituzte.

Horiekin batera beste hainbat berreskuratze lan egin behar dira Galartza, Izurieta eta Apotzaga-etxebarri auzoetan. Horiek Udalaren ardurapean utzi ditu Bidegik eta irailean hasiko dituzte.

**ESKORIATZA** > OSTALARITZA

# Pintxo poteoa egingo dute eguenetan, oraingoan hasita

Euro baten truke garagardoa edo ardo ondua mokadutxoarekin

Herriko giroa berotzea da asmoa, herritarrak kalera ateraraziz

**M.A.** > ESKORIATZA
Pintxo poteoari emango diote hasiera Eskoriatzan datorren eguenean. Debagoieneko hainbat herritan –Arrasate, Aretxabaleta eta Bergara– egiten duten ekimenarekin hastea erabaki dute herriko hainbat ostalarik.

Garagardoa edo ardo ondua mokadutxoarekin euro baten truke eskainiko dute. Gainerako edariek betiko prezioa izango dute, baina horiek ere mokadutxoarekin aterako dituzte pintxo poteoak iraun bitartean, hau da, 19:00etatik 21:00etara. Poteoan parte hartuko duten tabernak honakoak dira: Mirentxu, Inkernu, Toki Alai, Urrestilla, Zarauztarra, Akeita, Benta Motz, erretiratuen egoitzako taberna eta Azkoaga Enea hotela.

Ekimenarekin "jendea kalera aterarazi" eta "herriko giroa berotu" gura dute. Gainera, herritarrak eske zituztela diote antolatzaileek eta beste herri batzuetan izandako arrakastaren aurrean Eskoriatzako ostalariak ere animatu egin dira.

**ARETXABALETA** > ENPLEGUA

# Hiru laguni lana eman diote Enplegu Planaren barruan

Lan poltsa jarri du abian Udalak lan barik dauden herritarrek izena emateko

**M.A.** > ARETXABALETA
Aretxabaletako Udalak hiru lagun kontratatu ditu astean Enplegu Planean aurreikusitakoari jarraituz. Liburutegirako laguntzaile bat, artxiborako teknikari bat eta herriko bide eta bidexken inbentario lanak egiteko teknikari bat dira kontratatutakoak.

Aukeraketa prozesua Lanbide bitartez egin dute eta azken elkarrizketak Udalaren esku geratu dira. Hautatuak herrian erroldatutakoak dira eta langabezia prestaziorik jasotzen ez dutenak: Ane Amozarrain, artxiborako teknikaria; Nerea Altuna, liburutegiko laguntzailea; eta Zigor Barkero, bideen inbentario lanen teknikaria. Astean hasiko dira lanean eta sei hilabeterako izango da.

Gainera, azaroan aldi baterako beste lau peoi kontratatzeko asmoa dauka Udalak. Aurretik, ekainean, sei hartu zituen.

**LANGABEEN LAN POLTSA**
Bestalde, EAJk proposatuta eta iazko abenduan onartutako Enplegu Planari jarraituz, herriko langabeen lan poltsa jarri du abian. Interesa dutenek *www.aretxabaleta.com* Udal webgunean, Enplegua eta Garapena atalean, izango dute izena emateko aukera.

Lan poltsa honetan langabezian dauden herritarrek eman dezakete izena bi baldintza betez gero: Aretxabaletan erroldatuta egotea eta langabea izatea. Horretarako, izena emateko inprimakia bete beharra dago eta curriculumarekin batera honako helbidera bidali: *larrea@aretxabaleta.net*.

**MERKATARITZA** > AZOKA

# Beherapenen azoka egingo du Aretxartek zapatuan

Mitarte kalean jarriko dituzte postuak hamar merkatarik eta herriko bi elkartek

**M.A.** > ARETXABALETA
Aretxarte merkatarien elkarteak, Udalaren laguntzarekin, beherapenen azoka egingo du zapatuan, hilak 11. *Ixadebalde* izenarekin, lehenengoz antolatu dute halako azoka gurean eta Mitarte kalean jarriko dituzte postuak egun guztian (10:00-19:00). Eguraldi txarra eginez gero, Herriko Plazako aterpetan egingo dute.

**UDA ETA LORAMENDI ERE BAI**
Hamar merkatarik hartuko dute parte: Kioskoa, Belar Meta, Gertu, Asensio, Haurrak, Txilarra, Leintz mertzeria, Kilima, Leniz liburudenda eta Orly.

Horiekin batera irabazi asmorik ez duten herriko bi elkarteri ere egingo diote tokia: UDA eta Loramendi.

**ABUZTUKO ZENBAKI SARITUAK**
Bestalde, abuztuko txartelen zozketa egin du Aretxartek. Urtebeterako UDAko bazkidetza ordainduko die zenbaki hauek dituztenei: 28.239 –Gertun banatua– eta 27.894 –Orlyn banatua–. Irailaren 15erako agertu beharko dute zenbaki hori dutenek bestela ordezkoendako izango da saria: 30.026 –Gemes– eta 28.421 –Gertu–.

Iraileko txartelak banatzen dabiltza orain, eta saria izango da Erriberriko hotel batean bi lagunendako bi gau pasatzea.

> JENDARTEA

### Arantzazura erromesaldian joango dira gaur udalbatzako hainbat kide eta herritarrak

Gaur, irailak 6, erromes joango dira Arantzazura aretxabaletarrak. Aspaldiko ohitura da amabirjinaren bederatziurrenaren barruan, iraileko lehen astelehenean, Arantzazura bisita egitea eta hutsik egin barik izango dira bertan udalbatzako hainbat kide –sei inguru, horietatik hiru oinez joango dira–, Udal teknikari batzuk, eta herritarrak.

Amabirjinari egingo diote bisita lehenengo eta gero bazkaltzera geratuko dira gehienak. Basotxo erretiratuen elkarteak autobusa antolatu du eta beteta joango da. Horiek Sindikan bazkalduko dute eta arrosarioa esan ostean itzuliko dira.



Eguneko zentroa Lurgorri pasealekuan dago. Bederatzi lagun jasoko ditu zentroak. JOSETXO ARANTZABAL

**ARAMAIO** > ONGIZATEA

# Eguneko zentroa datorren urtean zabalduko dute

Zerbitzua lehiaketa bidez adjudikatuko du Aramaioko Udalak; hasiera baten, 9 lagun jasoko lituzke Lurgorriko eguneko zentroak

**EDU MENDIBIL** > ARAMAIO

Eguneko zentroa datorren urtearen hasieran zabalduko dute Aramaion. Hasiera baten, urteko azken hiruhilabetekoan zabaltzeko asmoa zuen Udalak, baina zaila izango dela aitortu digu Asier Agirre alkateak. Construcciones Najera Novoa SL enpresa lanekin bukatzen ari da, baina lokala hornitzea eta zerbitzua adjudikatzea falta da oraindik. Aramaioko Udalak lehiaketa bidez adjudikatuko du zerbitzua.

Aspaldiko proiektua da eguneko zentroarena. Gaur egun mendekotasun egoeran diren Aramaioko adineko pertsonek Arrasatera joan beharra dute eta gabezia hori betetzera dator Lurgorri pasealekuko zentroa. Lokalak 130 m2 inguru ditu eta hasiera baten, bederatzi lagun jasoko lituzke Aramaioko Eguneko zentroak. Esan bezala, zentroa urtarrilean zabalduko dute, Aita Gabirel kaleko 4. zenbakian.

**UDALA ETA DIPUTAZIOA**

Arabako Diputazioak eta Aramaioko Udalak hitzarmena sinatu zuten urtarrilaren 27an. Hitzarmenaren arabera, Diputazioak Eguneko zentroaren %80 finantzatuko du eta Aramaioko Udalak gainerako %20 ordaindu-ko du. Maiatzean, udalbatzak, aho batez, 160.000 eurotan adjudikatu zizkion Najera Novoa SL enpresari Eguneko zentroko lanak. Lanen aurrekontua 160.000 eurokoa izan da eta, esan bezala, azken ukituekin dihardute.

**LANGABEENDAKO IKASTAROA**

Zuiako koadrilak antolatuta, zerbitzu anitzeko langile ikastaroa (elektrizitatea, igeltserotza, lorezaintzat eta iturgintza) izango da Legution irailaren 20tik urriaren 20ra. Eskolak astelehenetik barikura izango dira, 09:30etik 14:00etara. Izenematea (15 euro) irailaren 15era arte dago zabalik, Argibide gehiago 945 43 01 67 telefonoan edo *economia@cuadrillazuia.com* posta elektronikoan.

**ANTZUOLA** > HEZKUNTZA

# Gaueko taldean euskara ikasteko izenemate epea zabalik dago hilaren 15era arte

Interesatuek udaletxean edo liburutegian eman behar dute izena; ikastaroa 120 ordukoa izango da

**MIREIA BIKUÑA** > ANTZUOLA

Gaueko taldean euskara ikasi gura dutenendako deialdia egin dute dagoeneko. Izenemate epea zabalik dago hilaren 15era arte. Ikasturtea urrian hasiko dute eta ekainera arte 120 orduko eskolak emango dituzte. Ikastaroa Olaran etxean emango dute, 19:00etatik 21:00etara.

**INFORMAZIOA ETXEETARA**

Gaueko taldean parte hartu gura dutenek udaletxean edo liburutegian eman behar dute izena, astelehenetik egubakoitzera, bulegoetako ordutegian.

Oporren aurretik, uztail bukaeran banatu zituzten ikastaroaren gaineko informazio-orriak etxe guztietara. Orain arte bezala, oinarrizko maila erakutsiko dute. Gainera, aukera egongo da 1. hizkuntza-eskakizuna ateratzeko. Talde bakoitzean gutxienez zortzi lagun onartuko dituzte.

**PARTE-HARTZE ONA**

Giro polita sortzen da gaueko euskara taldean. Iaz oso gustura ibili zirela esan digute antolatzaileek, batez ere parte-hartzea oso ona izan zelako. Aurten bide beretik jarraitu nahi dute.

**ELGETA** > ERRETIRATUAK

# Santo Domingora txangoa prestatzen dabiltza

Salbadorpe erretiratuen elkarteak antolatuta hilaren 15ean, eguaztena, Santo Domingo de la Calzadan egun pasa egiteko aukera dago

**LARRAITZ ZEBERIO** > ELGETA

Ikasturtea hasi bezain laster antolatu du lehenengo irteera Salbadorpe elkarteko zuzendaritza batzordeak. Proposamena da hilaren 15ean, eguaztena, Errioxako Santo Domingo de la Calzada herrian egun pasa egitea. Elgetatik 110 bat kilometrora dago Santo Domingo, ordu eta erdiko bidea gutxi gorabehera. Taldea 08:30ean irtengo da herritik.

**IZENEMATEA ZABALIK**

Hasiera batean herriko erretiratu guztiei zabaldutako irteera da honakoa, baina zuzendaritzatik argi utzi dute elkarteko bazkideek lehentasuna izango dutela. Interesatuek Pedro Mari Uberarekin jarri behar dute harremanetan hilaren 10a baino lehen. Bazkideendako prezioa 32 euro da eta bazkide ez direnendako, aldiz, prezioa 42 euro.



Erretiratu taldea, iaz, Hondarribian. XALBADORPE ELKARTEA

**LEINTZ GATZAGA** > OSTALARITZA

# Bigarren urteurrena ospatuko du Soran Etxeak

150 bat lagunendako jangela egingo dute lehenengo solairuan, lau logela kenduta

**MIRARI ALTUBE** > LEINTZ GATZAGA

Bi urte beteko ditu zapatuan, hilak 11, Soran Etxea hotelak. Urteurrena ospatzeko afari berezia eta ekitaldia eskainiko ditu. Oraindik zehaztu barik daukate zein ekitaldi izango den, baina "zerbait berezia" izango dela ziurtatu dute: "Jaiak bukatu eta segituan da, baina gu ospatzearen aldekoak gara eta musika edo antzeko zerbait ekarriko dugu", dio Montse Valerio ugazabak.

**JANGELA HANDIA UDAZKENEAN**

Uda sasoian oso jende gutxi ibili dela onartu du, hotelean bat ere ez eta jatetxean ere gutxi. Hamar logelarekin inauguratu zuten hotela orain dela bi urte, baina hotelean oso mugimendu gutxi izan dutela dio Valeriok: "Horregatik, jatetxearen alde apustu egitea erabaki dugu eta pentsatuta jende askorendako lekua duten jatetxe gutxi daudela bailaran, jangela handi bat egingo dugu", argitu du.

Lau logela kendu eta 150 bat lagunendako tokia izango duen jangela egingo dute lehenengo solairuan. Hala, ezkontza, jaunartze edo lagun askoko senide arteko topaketak hartuko dituzte bertan. Sukaldea ere handituko dute zertxobait, "zerbitzu hobea eskaintzeko". Dagoeneko Udalaren oniritzia badute eta egin beharreko aldaketen gainean ere egon dira adituekin: "Ez daukagu obrarik egin beharrik, aldaketa batzuk bakarrik, eta uste dugu astebetean egin daitezkeela horiek", dio Valeriok.

Datarik ez dute zehaztu, baina ugazabak esan du udazkenerako gertu izango dutela jangela handi hori.

# Kirola



**> FUTBOLA**
Ohorezko Erregional mailako gure taldeak, jokalariz jokalari **> 22-25**

**> MIKEL OTXOA**
22 urteren ostean, berriz ere Gatzagako auto igoera antolatuko dutenetako bat; parte ere hartuko du proban
**> 27**




**HARRERA**
Gertukoen omenaldia jaso du, Kanadara abiatu aurretik

**ESTRAINEKOA**
Abuztu amaieran lortu zuen oñatiarrak palmareseko lehena

# Lagun giroan ospatu du Irizarrek lehen garaipena


Markel Irizarrek topa egin zuen atzo arratsaldean, jarraitzaile, lagun eta senitartekoekin batera. ANDER MONEDERO


Xanpainarekin ospatzen. A.M.

**JULEN IRIONDO** > OÑATI

Gertukoenekin eta xanpaina edanez; horrela ospatu zuen atzo arratsaldean Markel Irizar RadioShack taldeko txirrindulari oñatiarrak profesional mailan lortutako lehen garaipena. Irizar etxean da egunotan, abuztuaren 26an Frantziako Poitou Charentes izeneko itzuliko etapa irabazita itzuli eta aste honetan bertan Kanada aldera korritzera irten aurretik. Tarte labur honetan ingurukoen zorion mezuak jasotzeko modua izan du oñatiarrak. Xumea eta lagun artekoa, baina polita izan zen atzo Oñatin egin zioten harreratxoa.

